



FEMINISMOAK ETA ELIKADURA
BURUJABETZA UZTARTU
EMAKUMEEN ETA HERRIEN
AUTONOMÍA LORTZEKO



Mundubat

mundubat.org
facebook.com/mundubat

derechoshumanosdelcampesinado.org

Aurkibide

Dirulaguntza



ca

- 04 **Sarrera**
- 06 **Arantza Arrien**
EHNE- Bizkaia
- 08 **Jeanne Verlinder**
Europako Nekazarien Bidea
- 10 **Reyna Malde**
Landa-inguruneko langileen elkarte (ATC) (Nicaragua)
- 12 **Soraya Gadea**
Managuako Janari Denden Sareko dendaria (Nicaragua)
- 14 **Janaina Stronzake**
Movimento Dos Trabalhadores Rurais Sem Terra- MST (Brasil)
- 18 **Isabel Vilalba**
Sindicato Labrero Galego (Galizia)
- 22 **Alicia Reigada**
Elikaduraren Subiranotasunaren aldeko A-liatuak (Andaluzia)
- 28 **Miriam Nobre**
Emakumeen Munduko Martxa
- 34 **Nazioarteko topaketaren ondorioak**





Mundubat-ek elikaduraren subiranotasunarekin daukan konpromisoa zenbait lan-arlotan islatzen da, baina, batez ere, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloan eta elikaduraren subiranotasunaren aldeko sareak zein aliantzak sendotzeko prozesuan. Ibilbide horren esparruan, "Elikaduraren subiranotasunari buruzko hausnarketa feministak" nazioarteko jardunaldiak antolatzeke proposamena sortu zen.

Aurreko proiektuetan, bete-betean lan egin genuen, emakume nekazarien errealitatea eta borroka sozialetan zein beste garapen-eredu batzuen eraketan daukaten protagonismoa agerian jartzeko. Gai horiek sakonago aztertzean, konturatu egin ginen kritika feministatik ez genituela berariaz kolokan jartzen nekazarien eta landa-inguruneko erakundeetan bertan gertatutako desberdintasunak. Emakume nekazariekin proiektuak garatu eta jarduerak antolatzen genituen neurrian, ohartu egin ginen elikaduraren subiranotasunaren alde egiten dugun erakundeotan ez direla beti berariaz eta irmotasunez lehenesten emakume nekazarien eskariak.

Antzeman egin genuen erakunde sozialok defendatzen ditugun proposameneke beti edo berez logika patriarkala kolokan jartzen ez dutela. Elikaduraren subiranotasunaren arloan egindako zenbait proposamen logika patriarkal horren barruan kokatu litezke, ez dutelako eztabaidatzen emakumeei pertsonak, gizarteak zein natura zaintzeko zeregina esleitu dietela, esentzialistak direlako, ekoizpeneko eta ugalketako zereginen banaketan dagoen zapalkuntza-sistema kolokan jartzen ez dutelako eta ez dutelako onartzen gizonen pribilegioak ezinbestean jarri behar direla kolokan. Alde horretatik, ikuspegi kritiko feminista oso-oso garrantzitsua da, elikaduraren subiranotasunaren aldeko tokian tokiko proiektuak eta alternatibak eratzeko eta, aldi berean, landa-ingurunean zein nekazarien erakundeetan bertan gizonen eta emakumeen artean dauden botere-harremanak aldatzeko.

Nazioarteko topaketa honetan, hausnarketa horretan sakondu nahi genuen, elikaduraren subiranotasuna emakumeen jabekuntzarako, euren eskubideen defentsarako eta herrien zein emakumeen autonomiarako tresna eraginkorra izan dadin.

"Elikaduraren subiranotasunari buruzko hausnarketa feministak" nazioarteko topaketa 2011ko apirilean egin zen Bilbon. Bertan, hain zuzen ere, honako erakunde hauek emakumeek parte hartu zuten: GGKE, hegoaldean ditugun toki-bazkideak, erakunde feministak, emakume nekazarien erakundeak, erakunde mistoak, emakumeen erakundeak, iparraldeko mugimendu feministako emakume ekintzaileak eta nazioarteko sareetako emakume ekintzaileak; Nekazarien Bidekoak edo Emakumeen Mundu Martxakoak, esaterako.

Guretzat, funtsezkoa zen hausnarketa honetan iparraldeko zein hegoaldeko emakumeek parte hartzea. Patriarkatua errealitate globala da, eta mundu zabaleko edozein herrialdeetako emakumeak zapaltzen ditu, baina, batez ere, emakume nekazariak. Patriarkatuaren aurkako borroka bateratua izan behar da iparraldean zein hegoaldean. Zenbait jatorritako emakumeek sarean egindako lana oso tresna egokia da, eredu neoliberal patriarkalaren zapalkuntzari aurre egiteko moduko eredu berria eratzeko orduan.

Topaketa honetan, emakume parte-hartzaileek euren erresistentziako esperientziak nahiz azterketa eta euren erakundeetan egindako hausnarketak partekatu zituzten, elkarrekiko ikaskuntzarako arrakastak eta porrotak trukatzeko. Beraz, elikaduraren subiranotasunaren aldeko erakundeetako, emakumeen erakundeetako eta erakunde feministetako emakume kideen arteko elkarrizketarako gunea eratzea zen helburua, elikaduraren subiranotasunak emakumeen eskariei erantzun ahal diela aztertzeko.

Dossier honetan, emakume gonbidatuei egindako zenbait elkarrizketa azaltzen dira, baita topaketaren ostean ateratako ondorioak ere. Era berean, hausnarketarako bidea ere ematen digu, elikaduraren subiranotasunaren bidez badagoelako gizonen eta emakumeen botere-harremanak benetan aldatzerik.





Arantza Arrien

Bizkaiko EHNE

Euskal Herriko emakume baserriarren egoera nolakoa den azalduko diguzu?

Nekazaritzako jarduera orokorrerako oso zaila den testuinguruan, emakumeak bereizkeria egoera bereizian daude, PACeko laguntzak eskuratzeko eta euren banaketan parte hartzeko aukera gutxiago dituztelako.



Horrez gain, bere horretan dira emakume baserriarrek ustiatuegien titularitatearen arloan eta onespren sozial, ekonomiko zein profesionalaren esparruan jasan behar dituzten aldeak. Nekazaritzaren errealitatea gero eta gizonduago dago, eta ohiko nekazaritzajarduerak galtzen ari dira. Aurrerapausoak eman dira, emakume baserriarren egoera hobetzeko lege berriak idatzi edo onartu egin direlako. Dena dela, behar bezala garatu eta horretarako kontu-saila ekonomikoak zuzkitu behar dira. Esate baterako, Espainiako Estatuko Nekazaritzako Ustiatuegien Titularitate Partekatuari buruzko Legea edo EAEko (Euskadiko Autonomia Erkidegoko) Emakume Nekazarien Estatutua aipatu behar ditugu, besteak beste. Era berean, aurrerapausoak ere eman dira erakundeen eta emakumeen erakundeen kontzientziazio-mailan.

Badago antzekotasunik iparraldeko eta hegoaldeko emakume baserriarren artean?

Ugari. Munduan nagusi den sistema neoliberal eta patriarkala, elikagaigintzako sistema eta ondasun naturalen pribatizatorako sistema menderakuntza-sistemetan daude oinarrituta. Bertan, gainera, mundu zabaleko emakume guztiok desberdintasunak, bereiz-

keria eta indarkeria jasan behar ditugu.

Nolako ekarpenak egin dituzte emakumeek eta, batez ere, emakume antolatuek elikaduraren subiranotasunean? Zer da elikaduraren subiranotasuna emakumeentzat?

Elikaduraren subiranotasunaren bidez, emakumeek nekazaritzaren zein kulturaren arloan egiten duten lana onesten da. Horrez gain, oso alternatiba lagungarria da, lan hori gizarteratzeko eta behar bezala ezagutu eta partekatzeko: haziei eustea eta berreskuratzea, elikagaiak kontserbatzea, ekoizpenmugak jartzea, dibertsifikatzea, zuzenean saltzea, belarrak eta haien erabilerak ezagutzea... Elikaduraren subiranotasunak emakume baserriarren egoera aldatzen du, euren jarduera berdintasunean garatzeko aukera ematen die eta.

Nolakoak dira gizon eta emakumeen arteko harremanak Bizkaiko Nekazarien EHNE Sindikatuaren barruan?

Gizon eta emakume horiek euren arteko harremani buruz ari dira hausnartzen, aldatu egin behar direlako. Elkarrekin ari dira aztertzen nekazaritzako elikagaigintza aldatzeko emakume baserriarren egoera aldatu beharra

dagoela. Oso kontuan hartu behar da emakume baserriarrek nekazaritzako ustiatze lan egiteko erabiltzen dituzten ereduak sistemaren aurkakoak direla berez.

Aurrerapenik egon ote da emakumeek erabaki-guneetan duten partaidetzan?

Emakumeek nekazaritzari buruzko erabakiak hartzeko eremuetan duten partaidetza oso urria da oraindik: Eusko Jaurlaritzako eta aldundietako nekazaritza-sailak, osasun-sailak, albaitarien edo agronomoen elkargoak, elkarte sektorialak, labelak, kooperatibak eta sindikatuak.

Alde horretatik, emakume baserriarrentzat antolatu duzuen prestakuntza-prozesuaz hitz egingo zeniguke? Zertan datza, zergatik eta zertarako egiten da prozesu hori?

Generoaren arloko prestakuntza zeharkakoa da Bizkaiko EHNEk antolatzen dituen ikastaro guztietan. Nabarmendu egin behar da gutxienez ikastaroetan parte hartzen duten lagun guztien %70 emakumeak direla. Datorren urtean, elkarrekin finkatu edo lan egin nahi duten emakumeentzako prestakuntza-prozesua jarriko dugu abian, hau da, emakumeek bakarrik eratuak sortu



nahi dituzte ekoizpen elkartuari begira. Hartara, jabeak lortuko dute, euren espazioa edukiko dute, erabakiak hartu ahal izango dituzte eta jarduerarekin lotutako arlo guztietan parte hartu ahal izango dute. Era berean, hiriguneko eta landa-inguruneko emakumeak hurbiltzeko prozesua ere jarri da abian, feminismoak landa-kutsua izan dezan eta landa-ingurunea emetu dadin.

Prozesu horren barruan, Brasilekin trukatu dituzue esperientziak. Ekimen hori nola sortu zen, zertan zetzan eta topaketak nolako emaitzak izan zituen azalduko diguzu?

Badira zenbait urte Bizkaiko EHNEk "Emakume baserriarren arteko" trukeak antolatzen dituela. Iaz, esaterako, Brasilgo emakume nekazari antolatuekin egin genuen trukea, eta oso interesgarria izan zen Euskal Herriko eta munduko emakume baserriarren errealitatearen berri ematea nekazaritzako ez beste arlo batzuetako emakume antolatuak. Hori dela eta, langileen sindikatuak emakumeak eta talde feministak gonbidatu genituen trukean parte hartzera, eta oso-oso esperientzia aberasgarria izan zen, arlo pertsonalean zein erakunde-arloan. Horren ondorioz, gainera, prozesu osoa jarri zen abian.

Estrategiak eta aliantzak partekatzen dituzue hegoaldeko emakumeekin, baina, horrez gain, nolako harremana dute emakume baserriarrek hirikoagoa izan ohi den mugimendu feministarekin?

Emakumeen Mundu Martxa oso garrantzitsua izan da, harremanak ezartzeko eta emakume baserriarren zein hirietako emakumeen erakundearen artean espazioak nahiz eztabaidak partekatzeko orduan. Horri esker, bertako mugimendu feministek bere egin dute elikaduraren subiranotasunaren proposamena alternatiba politiko moduan.

Amaitzeko, etorkizunari begira zein dira Bizkaiko EHNEko emakumeentzako erronkak?

Pertsonen nekazaritzarekin eta elikadurarekin gaur egun duten harremana aldatzea da erronka, gaur egungo politikak aldatu ahal izateko. Landa-ingurunea zahartzeko, bertako ohiko jardunak galtzeko, bertako biztanleak alde egiteko eta ingurunea gizontzeko prozesuak geldiarazi behar ditugu. Izan ere, gauza txikien ekarpena balioetsi eta bultzatu egin behar dugu, hau da, nekazaritzako ustiatze txiki gehienek ekarpena, baina, batez ere, lurra lantzean printzipio agroekologikoak kontuan hartzen dituzten nekazariena. Hain zuzen ere, onetsi egin behar dugu ekarpen kultural eta sozial handia dutela eta zeregin garrantzitsua garatzen dutela tokian tokiko ekonomietan eta biodibertsitateari zein ekosistemei eusteko prozesuan.

Horrez gain, ekintza bereziak jarri behar ditugu abian, landa-inguruneko genero-indarkeriari aurre egiteko. Emakumeek ekoizpen-baliabideak berdintasunean eskuratzeko aukera izan behar dute, euren lan-baldintzak berberak izan behar dira, era guztietako azpiegiturak eta zerbitzuak hobetu behar dira eta gizon zein emakumeen artean ezarritako botere-harreman hierarkikoak eraldatu behar dira. Horrela, bada, generoarekin lotutako zereginak jarriko dira kolokan, emakumeen berdintasunezko partaidetza eragozten dutelako gizartean. Bestetik, bermatu egin behar da genero-ikuspegia nekazaritzako jarduerari buruzko azterketa, estatistika eta txosten guztietan hartuko dutela kontuan, benetako egoera agerian jartzeko, behar den moduko oinarria edukitzeko eta, aurrerantzean, arlo honetan ezarri beharreko legeak baztertzailak eta ezkutatzailak ez izateko.

Azkenik, emakumeok geuretzako astia eduki behar dugu.



Jeanne Verlinden

Europako Nekazarien Bideko koordinatzailea (LVC)

Gaur egun, nolakoa da Europako nekazarien egoera?

Nekazarien Bideko emakumeontzat (LVC), "nekazariak" hitza ereduaren defentsarekin dago lotuta, hau da, ekoizpen txiki iraunkorrerako ereduarekin.

Eredu hau garatzen ari da Europan. Zenbait urtetatik hona, Europako ipar-mendebaldean sentsibilizazio-lana sustatu da nekazarien zein kontsumitzaileen artean. Hain zuzen ere, ekoizpen txikiko eredu hori bultzatzen duten proiektu gehiago daude, hasten dauden artean nahiz eredu agroespportatzailea utzi eta eredu honi ekin diotenen artean. Hala ere, hasiera baino ez da, eta oraindik gutxi dira ekoizpen txiki iraunkorrari ekin diotenak. Zailtasun asko daude, EBko Nekazaritza Politika Bateratuak (PAC) sustatutako ereduaren ondorioz. PACen bertan, hainbat eta hainbat sistema, harreman eta banaketa-sare eskaintzen dizkizute, eredu agroindustrialean jarduteko. Hori oso oztopo handia da, orain arte banaketa-sarerik gabe eta kontsumitzaileekiko harremanik gabe nekazariak zailtasun handiak dituztelako, elikaduraren subiranotasunaren ereduaren arabera lan egiteko.

Zailtasunak zailtasun, aldaketa iristen ari da, eta, nire ustez, arlo politikoan gero eta

jende gehiagok entzuten du zer nahi dugun, eta gure premiak kontuan hartzen hasi da. nazioarteko zenbait erakundek eta negozioaren munduak ezarritako oztopoak desagerrarazi behar dira, nekazaritza iraunkorrerako ereduari ateak gehixeago ireki ahal izateko.

Nolako eragina dute Europar Batasuneko (EB) nekazaritza-politikek emakume nekazarien bizitzan?



Emakume nekazari gazteei buruz hitz egin ahal dizut, arlo horretan lan egiten dut-eta. PACen ondorioz, landa-inguruneke nekazari txikiak desagertzen dira, emakumeak nahiz gizonak. EBk proposatutako ereduaren ondorioa da, hain zuzen ere. Eredu hori kimikoen bidezko ekoizpenean oinarrituta dagoenez, ez da inolaz ere iraunkorra.

Niretzat, beldurtzeko modukoa da PACen bitartez eredu hori EBn sartu berri diren Ekialdeko Europako herrialdeetan saltzea. Ez dakit ziur, hainbesteko harremanik ez dugulako, baina baliteke gaur egun herrialde horietako eredu iraunkorragoa izatea. Jakin badakigu bertan nekazari gehiago daudela eta lagundu egin behar diegula, baina lanerako darabilten eredu tradizionalaren bitartez ondo bizitzeko aukera izan dezaten, alegia. Edonola ere, PACek EBk defendatzen duen eredu agroespportatzailean sartzea proposatu dienez, gure herrialdeetakoak bezalako akatsak egiten ari dira.

Emakumeek, ordea, PACek proposatutako eredutik kanpo egotea lortu dute. Eskala txikiagoko ereduaren ekoizten dute, baina ugartitasun handiagaz. Nolanahi ere, gizonak leialtasunez eutsi diote PACen proposamenari. Alde horretatik, PACeko politikek eragin han-

diagoa dute emakumeon artean, tradizioari begira ekoizpen txikiarekin gaudelako lotuta.

Horrez gain, emakume gazteei dagokienez, sarritan etxaldeak sortzeko proiektuak eta antzeko beste batzuk finantzatzen dituzten organismoek nahiago dute arduradunak gizonak izatea, oso lan gogorra dela... esanda.

Zure ustez, antzekotasunak daude emakume nekazariak lehen eta orain gainditu behar dituzten zailtasunen artean?

Europar, ez da ezertxo ere aldatu emakume nekazarien inguruan duten iritzia. Ondo dago gizonak nekazariak izatea, baina emakume nekazaria izatea ez da gizartean balioesten den lana.

Hala ere, nekazarien erakundeetan bertan eta lan-mailan, orain gizonak emakumeen zeregina eta jakintzak zein diren badakitela uste dut. Orain badakite emakumeok trebetasun desberdinak ditugula edo egoera beste era batera ikusi dezakegula. Oso aldaketa handia delakoan nago, beraz: emakumeok zer egin dezakegun errespetatu eta ezagutu egiten da.

Belgikan, guk, emakume nekazariok, gizonak bezalako eskubideak ditugu. Jabetza-eskubide berberak... Hori dela eta, hona natorrenean eta bertoko emakumeek nire aitona-amonen eskubide-maila bera dutela ikusten dudanean, zaila da aurrerakuntzarik egon den ala ez esatea. Nire iritziz, bilakaera ez da hainbestekoa izan eskubideen mailan, elkarbizitza-mailan baizik, pentsatzen, lan egiten eta partekatzen hasi gara-eta.

Nola hartzen dira kontuan emakume gazteen eskariak elikaduraren subiranotasunerako proposamenean? Nekazarien Bideak modu berezian lan egiten du emakume gazteekin?

Emakume gazteekin egindako lana Nekazarien Bideko Gazteen lan-taldearen barruan



dago kokatuta. Emakumeen lan-taldea eta gazteen lan-taldea daude, hain zuzen ere. Gazteen taldean, ez dugu generoaren arazoa zehatz-mehatz jorratzen, baina gure lana emakumeen taldearen lanarekin dago lotuta. Gazteen artean eragina duten gaiak lantzen ditugu; esate baterako, lurra eskuratzeko aukera edukitzea, prestakuntza praktikorik ez izatea, gizon eta emakume nekazari gazteek gizartean onespenez ez izatea... Guztiok batera egiten dugu aurrera.

Europa gero eta urbanizatuago dagoela kontuan hartuta, zergatik da hain garrantzitsua Nekazarien Bideak egiten duen lana? Zergatik da hain garrantzitsua gero eta gazte gehiago egotea landa-ingurunean?

Nire erantzuna sinplista izango da: mundu urbanizatu nahiz landa-ingurunean bizi, mundu guztiak jan egin behar du, eta janaria landa-ingurunean ekoizten da. Beraz, harre-

man hobek sortu behar ditugu ekoizleen eta kontsumitzaileen artean. Elikaduraren subiranotasunerako ereduak partekatzea eta ikastea du helburu. Nire ustez, landa-ingurunean bizi direnak ohituago daude naturan bizitzen, ekologia balioesten... Hala ere, ez dakit hori erabat egiazkoa den.

Zure iritziz, zergatik da garrantzitsua mugimendu feministarekin bat egitea? Zer ekarpen egiten du mugimendu horrek emakume nekazarien eskarrietan?

Nire ustez, Europako iparraldeko prestakuntza politikoa ez da hain sendoa. Hori dela eta, oraindik ere zer den feminismoa jakin behar dugu hobeto, gehixeago jakin behar dugu horri buruz. Niretzat funtsezkoa da prestakuntza horretara itzultzea eta, are gehiago, emakume nekazari moduan. Emakumeen aurkako indarkeria ageri-ageriko indarkeria da, hilketak eta bortxaketak daudelako. Europar, ordea, indarkeria hori ez da hain agerikoa, nahiz eta eredu matxista bete-betean bizi. Ez dugu nekazariak izan nahi gizarte-eredu patriarkalean. Ikuspegi feministara itzuli beharra dago, beraz.

Nolako lotuneak daude Nekazarien Bidearen eta erakunde feministen artean?

Abian jarri zenetik, Nekazarien Bideak aliantzen politika hori sortu du. Badakigu bakarrik ez dugula ezer egiterik, beste ahalgin batzuekin bat egin behar dugula, epe luzeagorako eragin handiagoa edukitzeko. Hasiera-hasieratik, Emakumeen Mundu Martxarekiko aliantza dugu, eta beste maila batzuetan ere lan egiten dugu. Emakumeen beste erakunde batzuekin lan egiten dugu, harreman horiek une oro zaindu eta indartu egiten ditugu eta aliantzarako aukera berriak bilatzen saiatzen gara, elkarrekin eratu ahal izateko.



Reyna Malde Muñoz

Landa-inguruneko langileen elkarte (ATC)
Nekazarien Bidea (LVC)
NICARAGUA

Azalduko diguzu nolako den Nikaraguako emakume nekazarien egoera? Nolako zailtasunak, aurrerakuntzak eta eskariak dituzte emakume nekazariak?

Guk oso historia luzea dugu emakume nekazari moduan. Behinola, emakume nekazariok gurasoei eta senarrei men egin behar genien. Azken 30 urteotan, ordea, apur bat aldatu gara, baina oraindik aske iritsi behar gara etxera. Oraindik, "sudurra" baino ez dugu agerian, Nikaraguako emakumeok diogun bezala. Prestakuntzei esker, erkidegoetan askatasunez parte hartzen hasi gara, lehen halakorik egiten ez genuenean.

Besteak beste, oraindik ere emakume nekazariarentzat oso zaila da burua ateratzea, aurrera egin dugu, baina gehiago lortu behar dugu. Oraindik ere, emakume batzuek irakurtzen ez dakitenez, zaila da burua ateratzea. Azken aspaldion, emakume batzuk ikasten ari dira, alfabetizatzen ari dira.

Gaur egun, emakumeek zeresana dute taldeetan zein kooperatibetan. Agerpena dute, emakumeak presidenteak, presidenteordeak, kideak... direlako. Dena dela, oraindik ere emakumeek ez dituzte kooperatibak zuzentzen, ez dira kooperatibetako buruak. Betidanik, kooperatiba askotan gizonak dira nagusi, eta emakumeak atzean daude. Edonola ere,

aurrera egin dugu, eremuak betetzen ari garelako.

Aurrerakuntza horiek lortu ditugu. Kooperatibetan, emakumeok administrazioaren egiturari geratzen ginen, gastu administrazioak eramaten genituen... Hala ere, emakumeok zuzendaritzara iristen garenean eta kooperatibetan emakume presidenteak, diruzainak, presidenteordeak... daudenean, aurrerakuntzak ematen dira, eta eremuak betetzeko aukera dugu.

ATCko prestakuntza-eskolari dagokionez, nolako prestakuntza-moduluak, jabeakuntza-prozesuak, trebakuntza-prozesuak eta lidergoak daude emakume nekazariarentzat?

Emakumeentzako eta, batez ere, emakume nekazariarentzako prestakuntza-moduluak bereziak izan dira, nola edo hala antolamenduari banaketa bermatzen delako. Emakumeok antolatu egin behar gara, "ilunpetik irten" behar gara. ATC-LVCn, genero-politikak ditugu, urratsez urrats egiten dugu aurrera.

Emakumeen lidergoari dagokionez, erkidegoko emakumeok antolatzen garenean, egiturari parte hartu nahi duten emakumeak bilatzen ditugu beti. Batzuetan, ostera, emakumeok partaidetzaren beldur gara. Erkidegoko emakumez ari naiz, gizonak liderrak

direla ikusi dutelako betidanik. Orain, ordea, arazoak arazo, emakumeek badute lidergorik.

Prestakuntza horri esker, botere-harremantako aldaketarik egon da erakundeko gizon eta emakumeen artean?

Gizonak egiturako karguetan daude beti, idazkari nagusiak izan nahi dute, karguen ardurak eduki nahi dute... Emakume nekazariok, ordea, ageri-agerian utzi nahi dugu geure eremua izan behar dugula, emakumeok gizonak bezain argiak garelako. Zenbait lan egiten ditugu: etxeko lana, kaleko lana... Ondo antolatu eta gauzez ere lan egin behar dugu. Gizonek, aldiz, ez. Kaleko lana amaitutakoan, gizonek telebista ikusten dute, eta janaria noiz iritsiko zain daude, besterik ez. Zailtasunak zailtasun, apurka-apurka ari gara eremuak betetzen.

ATC Nekazarien Bideko kidea da. Azalduko diguzu nola integratzen diren emakumeak eskualdeko aliantzetan eta trukerako guneetan?

Nekazarien Bidean, gure kidea den Yolanda Ares Nikaraguako burua da. Izan ere, aliantzak ditugu emakumeen beste erakunde batzuekin, elkarrekin lan egiten dugu. Eskualdeko beste erakunde eta emakume batzuekin

ere badugu aliantzarik. LVCKo emakumeak garenez, geure planak egiten ditugu. Nekazarien Bidean bertan, emakumeentzako plan bereziak prestatu ditugu 2014. urteari begira. Bestetik, trukerako guneak ere baditugu, Nekazarien Bideak bere proiektu handienak Erdialdeko Amerikan zehar garatzen dituenen. Trukerako guneen bidez, atzera elikatu egiten gara, hau da, Salvadorren, Guatemalan, Nikaraguan eta Hondurasen egiten duguna partekatzen dugu.

Erakunde horietan parte hartzen duten emakumeei nolako babesa ematen diete euren kideak diren gizonek eta beste emakume batzuek? Nolako zailtasunak daude erakunde mistoetan?

Oro har, gizonek partekatu egiten dute, euren gustukoak ez diren zenbait gauza egon arren. Dena dela, aurreiritzien aurka borrokatu behar gara, lekuz aldatu ahal izateko. Gizonezko kideei azaldu behar diegu zer egiten dugun, baina gogoko ez badute euren arazoa da. Emakumeok esperientziak partekatzen ditugu eurekin, baita geure estrategiak eta lanak ere. Gizonezko kide batzuekin lan egitea gogorragoa bada ere, oso aliatu onak diren gizonezko kideak ere baditugu, benetan.

Erakunde mistoak garenez, geure arazoak izan ditugu. Arazo nagusia baliabideen inguruko zailtasunak dira. Giza baliabide asko ditugu, baina baliabide ekonomikorik ez. Gainera, emakumeok lana eta seme-alaben zainketa uztartu behar ditugunez, gure partaidetza mugatuago egon daiteke. Era berean, oro har, emakumeak goizean goiz jaiki behar dira, dena eginda uzteko eta bilerara joan ahal izateko. Batzuetan, senarrek ez diete joaten uzten, eta honako hauxe esaten diete: "ez, ez zara bilera horretara joango, nire lanera etorri behar zarelako bazkaria ekartzen". Beraz, zailtasun horiek ditugula sentitzen dugu.

Nekazarien Bidean, Landa Inguruneke Emakumeen aurkako Indarkeria Amaitzeko Munduko Kanpaina jarri duzue abian. Zertan datza kanpaina hori?

Geure erakunde, ATCn, 40.000 baino gehiago gara. Erakunde mistoa da, eta %45 emakumeak gara. Kanpaina horren bidez, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazi nahi dugu.

Tabakoaren industrian, badago emakumerik lantegian 10 ordu ere ematen dituenik. Hori dela eta, sindikatuek ere presioa egitea nahi dugu, emakume langileekin, afiliatuekin zer gertatzen den ikusi behar dutelako: tratu txar fisiko, psikologiko, profesionalerako joerarik dagoen... Emakume langileen lan eskubideen alde borrokatu beharra dago.

Landa-ingurunean, familia barruko indarkeria ematen da. Guk prestakuntza mistoak eta ez-mistoak eskaintzen ditugu, gizonek eta emakumeek indarkeria desagerrarazi beharra dagoela jakin dezaten. Era berean, etxeko lanen inguruko sentsibilizazioa ere sustatzen dugu, emakumeek ez ezik, gizonek ere egin ditzaten.



Indarkeria hori desagerrarazteko, umeak ere hezi behar ditugu, semeak harroputzak izan ez daitezen, alabak jakinaren gainean egon daitezen eta mutilek lurra eurenak bakarrik izango direla pentsatu ez dezaten. Gure ustez, semeen eta alaben artean banatu behar da lurra. Mundu guztia konturatzea nahi dugu.

Nolako da Nikaraguako emakumeen mugimenduaren eta emakume nekazarien arteko harremana? Antzeko aldarrikapenak dituzuela esan daiteke?

Gure harremana landa-ingurunetik bertatik dator. Ez dugu inolako alderik. Izan ere, hiriko guztia landa-ingurunetik dator. Ikasi egin duten emakumeak daude, eta aurrera egiteko beste maila bat dute, baina gehienek familiak landa-ingurunekeoak dira. Argi eta garbi dago ikasten duten emakumeen asmoak ez direla ikasten ez dutenenak bezalakoak, baina hori alde batera utzita, badakite landa-ingurunetik datozela eta landa-ingurunekeo emakumeak errespetatu behar direla. Berdinen arteko harremana dugu: hirikoek landa-ingurunekeoak errespetatzen dituzte, eta guk ikasten dutenak ere errespetatzen ditugu, baldintza hobeak izan dituelako. Oso harreman ona da.

Antzeko aldarrikapenak ditugu, bai. Ere-muen %50 bete nahi ditugu gizonekin batera, emakume moduan egon nahi dugu zuzendaritzetan, estatuko erakundeetan. Gaur egun, emakume zuzendariak ditugu, Asanblada Nazionaleko emakume diputatuak...; eta, lehen, ez. Geure eskubideak aldarrikatzen baditugu, lege horiek bete behar dira. emakumeok genero-politikak babestu behar ditugu departamentuetan, tokian-tokian, nazio-mailan... Horrela, bada, geure genero-politikak beteko dira, eta hortxe bertan agertzen dira gure proposamenak.



Soraya Gadea Troches

Nikaraguako Managuako Janari Denden Sareko dendaria
Mundubat-eko lankidetzeta-proiektuko onuraduna

“Pulpera” Erdialdeko Amerikan erabiltzen den terminoa da. Zer esan nahi duen azalduko diguzu?

Ez dakit ziur Erdialdeko Amerika osoan benetan erabiltzen den terminoa den. “Pulperia” norberaren etxebizitzako alde batean jartzen den denda da, eta, bertan, oinarrizko produktuak zein beste produktu batzuk daude salgai.

Ohituren arabera, dendariak emakumeak izan dira beti, baina, gaur egun, gizon dendariak ere badaude. Hala ere, gizonak baino emakume gehiago gara. Gizonak kaleko beste lan batzuk egin ohi dituzte.

Managuako Janari Denden Sareak Mundubat-ek oinarrizko otzara lortzeko abian jarritako programan parte hartzen du. Zein izan dira programa honen ekarpenak eta nolako eragina izan dute elikaduraren subiranotasunean?

Nekazariak zer ereingo duten, ekoizpenerako zer erabiliko duten erabakitzeke boterea daukatenetik eta euren ekoizpenerako zer dabilten dakitenetik, elikaduraren subiranotasuna sustatzen da.

Euren ekoizpenari errentagarritasun handiagoa ateratzen diote, espekulatuzaileak birtartekariak zirenean baino gehiago, alegia.



Espekulatuzailea iritsi eta nahi zuena ordaintzen zien, nekazariak produktua ateratzeko garraiorik ez zeukatelako. Hori dela eta, mepetasun eta babes-falta handiagoa zeukaten espekulazioaren aurrean. Orain, aukera hori dute programaren barruan. Bestetik, elikaduraren subiranotasuna ere sustatzen da,

produktuak janari-dendara iristen direnean, kontsumitzaileek produktu merkeagoak lortzen dituztelako eta produktua nondik dato- rren badakitelako.

Zein dira emakumeentzako ekarpen be- reziak?

Oso-oso kontuan hartu behar dugu emakumeen egoera, orain ekoizteko finantziarioa dugulako. Egoera hori, ordea, ez zen Managuan (Nikaragua) ematen, emakumeak kreditu-subjektuak ez zirelako. Horrela, bada, leihoa ireki da.

Eraginik izan du genero-arloko prestakuntzak?

Bai, baina gehiago behar dugu. Izuaz hitz egin behar dut. Oro har, hiri-ingurune emakumeak ez gara hain lotsatiak, beharbada emakume nekazariak lotsatiagoak dira euren ohituren, kulturaren... ondorioz. Hala ere, Nikaraguako emakume nekazariak nahikotxo esnatu dira, eskubideak dituztela konturatu dira eta badakite eskubide horiek garatzeko aukera dutela.

Bestetik, janari-dendetan, emakumeon autonomia ere bultzatu da, honako hauxe erabakitze boterea lortu dugulako: zer egiten ari garen, nola egingo dugun, nola garatuko garen, zer egin nahi dugun...

Aldaketarik egon da zure erakunde gizonekin dituzun botere-harremanetan?

Galdera horren zain nengoen, eta nahikoa aldaketa egon direla esango nuke, gizonak betidanik izan direlako den-dena kontrolatu dutenak.

Orain, nire erkidegoan eta erkidego askotan, emakumeon esku dago kontrola. Antolatu egiten gara, geure arazoak konpondu ahal izateko. Nire erkidegoan, emakumeok dugu kontrola. Nire kooperatiban eta bertako kontseiluetan, emakumeok gara nagusi. Saiatuagoak gara erkidegoko lanetan. Nire ustez, irekiagoak gara, beti dugulako buruan geuk egiten dugunaren ondorioz seme-alabentzako baldintza hobekak, hezkuntza hobea lortuko ditugula, eta guk oso-oso kontuan hartzen dugu hori.





Janaina Stronzake

Movimento Dos Trabalhadores Rurais Sem Terra (MST) BRASIL

Nola antolatzen dira emakumeak MSTren barruan?

MSTn, emakumeok eremu bereziak ditugu. Genero-sektoreak honako arlo hauekin lotutako gaiari buruzko eztabaida sustatzeko ardura du: generoa, gizon eta emakumeen berdintasuna eta emakumeen jabeakuntza. Eremu horretan, gainera, gizonek eta emakumeek parte hartzen dute. Hala ere, konturatu egin gara oso garrantzitsua dela emakumeen eremu bereziak edukitzea, jabeakuntza hori eta harreman berri horiek eratzeko. Borrorak, prestakuntza... antolatzen ditugu, baina emakumeekin bakarrik. Horrela, bada, metodoa, prestaketa, plana eta betearazpena emakumeen esku daude. Hartara, metodoa, borroken prestaketa eta prestakuntzarako zein ikaskuntzarako une horien prestaketa ere bada jabeakuntza.

Noiz sortu zen MSTko genero-sektorea?

1999. urtean, generoaren, berdintasunaren eraketaren eta berdintasunezko harremanen lerro bereziak atera eta genero-sektorea eratu genuen modu formalean.

Zergatik eratu zenuten?

Konturatu egin ginen generoaren ze-

harkakotasuna ez zela nahikoa, eztabaida behar den lekuan jartzeko eta emakumeen partaidetza sendotzeko. Eremu berezia eduki behar genuen, gai hori jorratzeko. Ordura arte, emakumeen taldeak genituen, baina mugimenduko bertako talde informalak ziren. Emakumeok antolatu egiten ginen, eta, gure artean, taldean egiten genituen gauzak. 1999. urtean, zeregin hori modu kolektiboan onartu zen MSTn bertan, hau da, generoaren gaia lantzea eta emakumeen jabeakuntzaren gaia sustatzea.

Zein dira helburuak eta lan-lerroak?

Oro har, emakume eta gizonen arteko berdintasunezko harremanak benetan eratzeari da helburua, hau da, bereizkeriarik ez egotea, menderakuntzarik ez egotea, esplotaziorik ez egotea eta generoagatik ez zapaltzea. Bestetik, emakumeek honako gune hauetan partaidetza handiagoa izatea da helburu zehatzagoa, hau da, zuzendaritzetan, baliabide materialen erabileran, baliabide finantzarioen kudeaketan, kooperatibetan, ekoizpenean... Izan ere, historiari begira, emakumeek osasunaren zein hezkuntzaren arloetan jarduten zuten, baita gizartean bertan, oro har. Beraz, emakumeen partaidetzari dagokionez, bes-



teak beste, funtsezkoa da mugimenduko esparru guztietan berdintasunean lan egiteko aukera edukitzea.

MSTk zer arlotan ezarri ditu aliantzak mugimendu feministarekin? Nolako erakpena izan dute aliantza horiek emakumeek MSTn garatutako borroketan?

Harreman berrii buruzko oinarriko eztabaida abiapuntu nagusia da. Nahikoa aliantza handia daukagu elikaduraren subiranotasunari eta emakumeen jabeakuntza ekonomikoari buruzko eztabaidan, eta, orain, aurrera egin dugu eskubide sexualen zein ugalketa-eskubideen arloan. Gizartean, oro har, elizen eragina nahikoa handia da oraindik, eta eliza katolikoak zeresan handia dauka emakumeen zapalkuntzan. Hain zuzen ere, oso aliantza interesgarria daukagu mugimendu feministekin eta, batez ere Emakumeen Mundu Martxarekin, eta oso lagungarria da horrelako gaientan aurrera egiteko orduan. Oro har, landa-ingurunean bizi garenontzat, mugimendu feministekin egin dugun aliantza nahikoa estrategikoa da, MSTk gizartearen eraldaketari begira zehaztu duen helburua lortzeko, aliantzak izan behar ditugulako beste erakunde batzuekin, landa-ingurunean zein hirietan. Gure ustez, ez dago gizartea inolaz ere aldatzerik, agenda feministarik ez badago, ikuspegi feministarik ez badago.

Emakumeen aliantzetan, zer eremu eratu dira Nekazarien Bidean bertan?

Nekazarien Bidea mugimenduen egituraketa da, eta bertako genero-batzordeak MSTko genero-taldearen antzeko zereginak garatzen ditu. Funtsean, generoari buruzko gaiak sustatzen dira, eta harreman berri horiek eratzen dira mundu zabalean Nekazarien Bideko kideak diren mugimendu sozial guztietan.

Zergatik lurren okupazioa?

Brasil lurren banaketaren arloan desberdintasun handienak dituen lehenengo edo bigarren herrialdea da munduan. Hain zuzen ere, lehenengo postuagatik ari da lehian Paraguarekin. Lurra erabat metatuta dagoenez, metaketa horretarako gaur egungo Gini indizea 0,872koa da, 1 erabateko metaketa dela jakinda¹. Bestetik, indarreko legea den lurren estatutuaren arabera, nekazaritza eraldatu beharra dago. Horrela, bada, batzuetan, lurrek ez dute euren eginkizun soziala betetzen, bertan ez direlako langileen eskubideak errespetatzen eta ingurumena babesten ez delako. Lur horiek, hain zuzen ere, era kriminean erabiltzen dira, kontrabandorako, legez kanpoko substantzien trafikorako... Kasu horietan eta beste batzuetan, aurreikusita dago lurra desjabetu egin behar direla eta nekazaritzaren eraldaketa ezarri behar dela. Horrez gain, metaketa handia eta nekazaritzaren eraldaketa aurreikusten duen legea kontuan hartuta, landa-ingurune eta hiriko biztanle asko daude nekazaritzaren eraldaketa noiz iritsiko zain, behar eta nahi dutelako. Izan ere, lurra eduki behar dute, biziraun ahal izateko. Hiru faktore horiek kontuan hartuta eta, legea aurreikusita egon arren, nekazaritza eraldatzen ez zela jakinda, argi eta garbi geneukan emankorrak ez ziren latifundioak okupatu behar genituela, presioa egiteko eta nekazaritzaren eraldaketa lortzeko.

Emakumeen bizimoduari begira, nolako ondorioak ditu lurra okupatzeko aukerak?

Lehenengo eta behin, ekoizteko oinarri

1. Gini indizea desberdintasunaren adierazgarri den neurria da, eta, oro har, diru-sarreraren desberdintasuna neurtzeko erabiltzen bada ere, desberdintasunezko edonolako banaketa neurtzeko ere erabili daiteke.

zehatza lortzen da, landatzeko, eriteko eta etxebizitza eraikitzeke eremua, alegia. Beraz, nolabaiteko segurtasun fisikoa lortzen da, eta ez dago bizimodua hobetzeko edo norberaren jabeakuntza erdiesteko baldintzak proposatzerik, hori aurreikusteko moduko oinarri zehatzik ez badago, hau da, emakume horiei gutxieneko segurtasuna lortzeko oinarri zehatzik ez badago, lurra eskuratzeko aukera, alegia.

Gainera, MSTn bertan, argi eta garbi daukagu lurren titularitatea emakumeen izenean egon behar dela. Ez dago emakumeen askatasunean eta emakumeentzako berdintasun-baldintzetan era abstraktuan pentsatzerik, prozesua suspertzeko moduko gutxieneko baldintza zehatz materialik ez badago.

Beraz, baduzue arau zehatzik, lurren titularitatearen arloan emakumeen aldeko bereizkeria positiboa egiteko?

Bai, titularitatea emakumeentzat da, batez ere. Bikotearen izenean ere jarri daiteke, baina banatzen badira, emakumeak izango du lurrekin geratzeko eskubidea.

Nolako eragina dute MSTko emakume antolatuek erakunde bertan? Zer aldaketa edo aurrerapen eman dira?

Ageriko zenbait aurrerapen zehatz gertatu dira. Batetik, MSTko esparru guztietan paritatea da nagusi. Zuzendaritzak edozein mailatan, hau da, kanpalekuan, kokalekuan, estatuan edo zuzendaritza nazionalean egiten dituen bilera guztietan, erdiak gizonak izango dira; eta beste erdiak, emakumeak. Erakunde bertan garatzen ditugun ikastaro, prestakuntza eta ikasketa guztietan, erdiak gizonak dira; eta beste erdiak, emakumeak. Horra hor gure lorpenetakoa, eta, kopurua nahikoa ez bada eta halaxe da, kopurua kalitate bihurtzen da urteen joan-etorrian. Gainera, parte hartzen

ez badugu, ez dugu inoiz behar besteko gaitasunik eta trebetasunik geureganatuko. Hori dela eta, hortxe egon beharra dago, edozein unetan gizona beste edozein kide bezain onak garelako esateko. Nire ustez, une honetan, kalitate hori benetakoa da, eta emakumezko kide asko gizonen parean daude zentzu askotan. Hala ere, muga asko daude, eta egin beharreko bidea luzea da oraindik. Agerikoa denez, gizarte kapitalista eta patriarkalean txertatuta dauden mugimendu sozialek gizarte orokorrak bezalako azarokak eta mugak dituzte. Esparru guztietan erdiak emakumeak direnez, aurrera egiten dugu kooperatibetako zuzendaritzetan, esparru materialean eta lorpen materialean. Hori dela eta, lorpen horien artean, nabarmendu egin behar da lehentasuneko delako lurren titularitatea emakumeen izenean egotea, orain arte ez delako halakorik gertatu.

Nolako zailtasunei aurre egin behar izan diezue prozesu horretan eta, egon baleude, nolako erresistentziak aurkitu dituzue erakundeetan bertan?

Oro har, esparru matxistetan arrunta dena, emakumeek beste edozein pertsonaren gaitasunak eduki ezin dituztela uste dutenen artean ohikoa dena. Hasiera batean, emakumeen esparrua etxea, sukaldea, familiaren zainketa eta besterik ez delako usteari aurre egin behar genion. Gero, emakumeek gaitasunik ez dutela, prestatuta ez daudela dioen diskurtsoa gainditu behar izan genuen. Dena dela, badago alde onik, zenbat eta gehiago ikasi eta zenbat eta agerpen handiagoa izan, orduan eta indartsuagoak garelako. Emakumeen jabekuntzarako prozesuak mugimendu sozialari berari indar handiagoa ematen dion neurrian, gizonak eta emakumezko beste kide batzuk konturatu egiten dira feminismoa eta generoa gai garrantzitsuak direla eta onetsi egin behar direla.



MSTn, garrantzi handia ematen diezue diskurtso eta prestakuntza politikoari. Feminismotik bertatik lantzen dituzue?

Bai, ikuspegi marxistatik egiten ditugu azterketak, baina gero eta sarriagotan erasten diegu diskurtso feminista. Dena dela, ez dugu aztertzen era bateko edo besteko feminismoa den, hau da, feminismo burgesa den edo beste korrante askotakoa den. Batzuen esanetan, pentsaera-korrante feminista bat dago feminista bakoitzaren atzean. Guretzat, ordea, honako hauxe da garrantzitsuena, batik bat: gizarte-mailen, etnien eta gizonen zein emakumeen arteko esplotazioaren amaiera kontuan hartzen duen aldaketa soziala sustatzea. Pertsonen arteko harreman-aldaketa horiek guztiak kontuan hartzen ez badira, ez dago gizarte berria eratzerik. Beraz, MSTko zein Nekazarien Bideko ekintzak eta eraldaketa soziala antolatzean, ezinbestekoa da emakumeen jabekuntza eta emantzipazioa kontuan hartzen dituen ikuspegia ezartzea.

Nolako lotunea dauka elikaduraren subiranotasunerako proposamenak lurraren aldeko borrokaekin?

Inolako zalantzarik gabe, elikaduraren subiranotasuna ezartzeko, ezinbestekoa da oinarri zehatza edukitzea, lurra, alegia. Gaur egun, ordea, nekazaritza industrialean edo nekazaririk gabeko nekazaritzan inbertitzen da kapitala. Horren aldean, elikaduraren subiranotasunaren arabera, antzinako jakitateak birbaloratu behar dira, eta ekoizpen-teknika berriak ezarri behar dira. Orain arte ditugun datuen arabera, nekazariak mundua elikatze-ko janari guztiaren %60-%70 ekoizten dute, nekazaritza industrialak baino lur gutxiago eduki arren. Bestetik, ingurumenaren arloko arriskua ere badago. Hain zuzen ere, nekazariak dira ingurumena errespetatzeko eta nekazaritza iraunkorra garatzeko gai diren elika-

gai eta lehengai ekoizle bakarrak. Edonola ere, elikaduraren subiranotasunaren oinarria den nekazaritza hori ezartzeko, ezinbestekoa da nekazaritza bera eraldatzea. Zenbat eta lur gehiago eduki nekazariak, orduan eta baso gehiago izango ditugu, betiko baso gehiago leheneratuko dira eta, horren ondorioz, airearen kalitatea hobetuko da, ura leheneratu eta hobetu egingo da eta elikagai osasungarriagoak eta merkeagoak edukiko ditugu hirietan nahiz landa-ingurunean.

Emakume antolatuek zer neurritan jarri dituzte gaiak elikaduraren subiranotasunaren agendan?

Hasiera-hasieratik, argi eta garbi eduki genuen historiari begira emakumeek izan dutela nekazaritzaren gaineko ardura. Emakumeek etxea, familia... zaintzen dituzte. Historiari begira, hain zuzen ere, emakumeak eurak dira hazien zaindaria, eta elikaduraren subiranotasunak zerikusi handia dauka gizon eta emakume nekazariak hazien arloan garatutako zainketarekin, ugalketarekin, hobekuntza genetikoaren eta hautaketarekin.

Elikaduraren subiranotasunari buruzko eztabaida emakumeen esku dago, eta abiapuntua hazien gai hori izango da. Izan ere, transnazionalak hazi transgenikoak erabiltzen hasi zirenean, emakumeak izan ziren hazien gaineko boterea galtzen hasi zirela konturatu ziren lehenengoak. Landa-ingurunean, tradizioari begira, gizonak izan dira eskala handiko nekazaritzaren arduradunak: soia, artoa... ereiteko lur-sail handiak. Emakumeek, oster, eskala txikiko nekazaritza dute ardurapean, hau da, baratzea, lorategia, animaliak, janaria, fruta-arbolak... Hori dela eta, emakumeek gizonak baino lotune iraunkor eta zuzenagoa daukate laborantzen zein hazien barietate handiagoarekin. Beraz, azkenean, emakumeak dira elikaduraren subiranotasunerako propo-

samena aurrera daramatenak, haziak galtzeko arriskutik abiatuta. Proposamena emakumeek eurek bultzatzen dutenez, elikaduraren subiranotasunaz hitz egitean, emakumeek munduko elikagaien ekoizpenean daukaten zeregin bereziaz hitz egiten dugu. Era berean, elikaduraren subiranotasunaz hitz egitean, genero-harreman berriez ere hitz egiten dugu.



Zer gai dira kezkarriak MSTko emakumeentzat? Zer erronka dituzue etorkizunari begira?

Batetik, elikagai osasungarriak ekoitzi nahi ditugu behar besteko kopuruan, munduko leku bakoitzeko jendearen kultura kontuan hartuta. Mundua elikatzeko gaitasuna galtzeko arriskua, agronegozioko enpresa transnasionalek inposatutako arriskua nahikoa larria da, etsai ahaltsua da-eta. Monsanto, Singenta, Nestlé eta Bungi konpainien aurka borrokatzea ezinezkoa izan liteke, kanpotik begiratu gero. Beraz, erronka handia da benetan.

Bestetik, geure lana egitea da gure erronka, hau da, haziak zein laborantzak zaintzea eta familiarentzako, erkidegoarentzako eta gizarte hurbilenarentzako elikagaiak bermatzea. Era berean, guk geuk, gure erkidegoak eta gizarteak berak honako gai hauen garrantziaren inguruko kontzientzia hartu behar dugu: elikaduraren subiranotasuna, nekazaritzaren eraldaketa, generoari buruzko eztabaida eta emakumeen eztabaida. Zeregin horiek horixe daude, eta, askotan, badirudi ezinezkoa dela aurrera eramatea. Horrexegatik ere, oso garrantzitsua da agerpena dugun esparru guztietan sareak eta aliantzak edukitzea eta ezartzen ahalegintzea.

Landa-inguruneari eta hiriei begira, eskubide sexualen eta ugalketa-eskubideen gaia ere bada erronka. Oso garrantzitsua da emakumeen emantzipazioa sustatzea, eta, seguruenik, zailtasun handiagoz aldatu daitezkeen gaietako da. Erronka handia egin nahi dugu, hau da, lurra konkistatzeko, elikagaiak ekoizteko, industrientzako lehengaiak bermatzeko eta,aldi berean, emakumeen partaidetza politiko zein publikoan aurrera egiteko erronka eratu nahi dugu elkarrekin. Horrek guztiak, gainera, arlo pribatuko jabekuntzarekin eta gure gorputzen gaineko jabekuntzarekin ere badu zerikusirik.



Isabel Vilalba

Sindicato Labrego Galego

Zein da Galiziako nekazarien gaur egungo egoera? Nolako zailtasunei aurre egin behar diezue, batez ere?

Estatuaren zein Europaren gaineratikoan bezala, oso nekazari gutxi dituen gizartea omen da modernoa. Gizarte moderno horretan etorkizuna edukitzeko ere, eredu industrialia ezarri behar omen da.

Hori dela eta, azken urteotan, nekazarien proiektu ugari galdu dira. Esate baterako, 90eko hamarkadan guk 80 milatik gora proiektu txiki eta ertain edo esne-ustiategi genituen esnegintzan; eta, gaur egun, 13 mila baino ez. Horren ondorioz, jende askok landa-ingurunetik alde egin duenez, erabat zahartu dela esan beharra dago.

Eredu hori, beraz, erabateko porrota izan da hainbatentzat. Eredu horren kostu energetikoak handiak dira, ekoizpen-kostu asko ditu eta, azkenean ere, ez du nekazarietzako bizibiderik bermatu. Hori, ordea, oso orokorra da edozein ekoizpenetan, esnegintzan nahiz nekazaritzako beste ekoizpen batzuetan.

Gizartean, eztabaida orokorra piztu da eredu hori kolokan jartzeko. Eztabaida-talde txiki asko euren posizioak ari dira indartzen; esate baterako, gure erakundea, Sindicato Labrego Galego, eta Nekazarien Bidea dira



horren adierazgarri. Nekazaridun nekazaritza proposatzen dugu, askoz nekazaritza autonomoagoa, ingurumena gehiago errespetatzen duena, iraunkortasun sozialerako beste proposamen batzuk egiten dituen eta kalitate handiagoko produktuak sortzen dituen.

Egia esan, zailtasun asko daude, eta Nekazaritza Politika Bateratuaren erantzukizuna itzela da eta izan da bertan. Nire ustez, nekazarien egoera ez da ona, baina talde asko ari dira egoera hori berraztertzen.

Zein dira Galiziako emakume nekazarien eskari nagusiak? Nolako aurrerapausoak eman dira euren egoeran azken urteotan?

Emakume nekazariei dagokienez, funtsezko zenbait gai hartu behar dira kon-tuan. Nekazariontzat funtsezkoa da geure lanetik bizitzeko aukera izatea. Elikagaiak ekoitzi eta ordainsaria jaso behar dugu euren truke, geure lanetik bizi ahal izateko.

Hori lortzeko oztopoak ugariak dira, ordea: gure ohiko saltokiak desagertzen ari dira, gobernu industrialaren presioa ikaragarria da eta, horren ondorioz, zaila da eskala txikiko proiektu dibertsifikatuei eustea. Era berean, ageritasunerako eskubideen inguruko zenbait muga ere badaude. Galizian, oraindik

ere 35 mila emakume baino gehiago hartzen dituzte "familia-laguntzatat". Nekazaritzako zein abeltzaintzako proiektuaren gaineko eskubideak gizonetako titularraren esku daude. Emakumeek, oster, ez dute diru-sarrerarik, ez dira inon ageri eta ezin dute ustategia kudeatu. Gainera, edozein izapide egiteko, gizonetako kideari eskatu behar diote sinatzeko, edo, zuzenean, gizonetako kideak dituzte eskubide horiek. Beraz, ikusezintasuna eta autonomia-falta dira nagusi.

Estaldura sozialari dagokionez, emakumeen esanetan, gero eta zailagoa da Gizarte Segurantzako kotizazioei eustea. 2007an, Gizarte Segurantzak eraldatu zen, eta horren ondorioz sortutako kostuak handi-handiak izan ziren. Oso zaila da gutxienezko estaldurak edukitzea.

Bestetik, politika publikoak ere murriztu egin dizkigute, eta eragin zuzena dauka emakumeon artean. Edonorentzat gaur egungo munduko gizartearen parte hartzea zaila bada, are zailagoa da landa-ingurune emakumeentzat.



Hala ere, emakumeen mugimendua betebetean ari da lanean era guztietako proposamen zein eskaeretan, eta oso ona dela uste dut. Kontzientzia eta borroka bizi-biziak dira, eta edonongo emakumeak daude antolatuta, murrizketei aurre egiteko, beste era bateko

partaidetza aldarrikatzeko eta proiektu desberdinak eratzeko prest.

Galizian bertan, nekazarien interesak hartzen dituzte kontuan?

Ezetz uste dut. Oro har, administrazioak oso-oso kontuan hartu du "gizarte modernoak" nekazaririk eduki behar ez duela.

Hori dela eta, nekazariarentzat oso oldarorrak diren politikak egin ditu. Oraindik ere, instalazio eta proiektu industrial handiei ematen die lehentasuna, lurra konprometitzen ditu, harrobiak jartzen ditu eta gure baliabideak bete-betean konprometitzen dituzten proiektu handiak sustatzen ditu. Hain zuzen ere, eukaliptoaren monolaborantzak dira horren erakusgarri: 400 mila hektarea baino gehiago erabiltzen dira eukaliptorako.

Orain, beste urrats bat eman du, eta agroerregaiak ekoiztu nahi ditu, nahiz eta gaur egun eta etorkizunari begira lurraldearen erabilera baldintzatzen duen eskema izugarria den. Beti-beti, nekazaritzako instalazio handiei ematen die lehentasuna.

Bestetik, landa-ingurune bizitegi-erabilera ere lehenesten da. Nola edo hala, betiko nekazaritza-erabilerak jazarri egiten dira sortutako guneetan bertan. Sarritan, nekazaritzako jarduera gogaikarritzat hartzen da, bere eskala oso txikia izan arren.

Hori guztiori "autogorrotaren" erakusgarri da, inolako zalantzarik gabe. Badirudi gure gizarte eta gure balioak ezabatu egin behar zirela. "Modernotasuna" zen nagusi, nahiz eta modernotasun horren ondorioz baliabideak konprometitu eta gure kultur zein nortasun balioak eta biodibertsitatea suntsitu. Gaur egun ere, halaxe gertatzen da. Ez da historiari begira nekazarietako ordezkatutako kultura, biodibertsitate eta aberastasun guztia aldarrikatzen. Edozer da berritzailea, lurraldearentzat barrabaskeria izan arren. Horrez gain, milioika

eta milioika fondo publiko inbertitzen dira horrelako proiektu zentzugabeetan.

Nolako ahalmena du eukaliptoak?

Kaltegarria da ingurumenarentzat, eta edonolako landaketak egiteko moduko lur emankor-emankor asko okupatu ditu, baina interes handikoa da papergintzarako. Hain zuzen ere, ingurumenaren eta herritarren interesaren gainetik lehenetsi da horrelako landaketa. Hori dela eta, ondorio larriak sortu dira; esate baterako, baso-oinarrien kalterako diren izurrite bereziak. Akuifero asko arriskuan daude, eukaliptoak ur asko behar duelako. Bestetik, espezie pirofitoa ere bada. Galiziako suteen arazo horren ondorioz sortzen da neurri batean. Ingurumen eta gizarte arloko arazo dela alde batera utzita, nabarmendu egin behar da urtero milioiak inbertitzen direla horretarako. Egoera horretako onuradun handiak papergintzako enpresak dira.

Nekazarien Bideko kideak zaretenez, mundu zabaleko nekazarien erakundeak ezagutzen dituzue. Zure ustez, Espainiako estatuko nekazarien egoerak ez du inolako zerikusirik gainerako lekuetako nekazarien egoerarekin edo arazo globalak daude?

Arazo globalak daudela uste dut. Une honetan, mundu-mailako politikek kapital-metaketa eta espekulatzailen interesak lehenesten dituzte, mundu zabaleko nekazarien lepotik. Izan ere, transnazionalen interesak sustatzen dira, nahiz eta askotan nekazariak euren herrietatik botatzen dituzten eta bertako baliabide naturalek jabetzen diren. Patenten bitartez, oso-oso garrantzitsuak diren haziez jabetzen dira, haien jabe egiten dira eta elikadura beste salgai bat baino ez da errentzat.

Egia esan, munduko leku askotan eraginak



Sindicato Labrego Galego erreferentzia da estatu espainolean, emakumeek gero eta zeresan handiagoa dutelako sindikatuan. Azalduko diguzu nola garatu den prozesu hori?

Batetik, oinarri soziala duten prozesu guztiak dira garrantzitsuak. Bete-beteen lan egiten dugu, eskualde guztietan emakumeek hitza eduki dezaten eta eraketan zeresana izan dezaten. Prozesuak ez dira hierarkikoak izan behar, kolektiboak, eraketa sozialekoak baizik. Era berean, esparru guztietan egon behar gara. Biztanleen erdiak bagara, erabakiak hartzeko guneetan ere egon behar gara. Ez dugu "norbaiten gaineko" boterea ulertzen, "norbaitekin" partekatutako boterea eta beste gizarte-harreman batzuk "eratzeko" boterea baizik.

Gure sindikatuarentzat, lehenasunezkoa da emakumeekin lan egitea. Gure ustez, emakumeak funtsezkoak dira, esplotazio-sistema neoliberala hankaz gora jartzeko. Alde horretatik, ageriko aurpegiak daude, baina, nire iritziz, prozesu honen atzean dauden emakumeen taldea da garrantzitsuena. Beti-beti adi egon beharra dagoela uste dut. Gai-ditu beharreko kontraesan asko daude egunez egun. Une honetan, emakumeak izatearren, besterik ez, baztertu egiten gaituzte. Alde horretatik, oso agenda politiko argia eduki behar dugu arlo honetan, eta, emakumeak izanda, bete-beteen lan egiten jarraitu behar dugu feminismo globalagoaren arloan.

Sindikatuak emakumeen jabeakentza-prozesu horretan, zailtasunik sortu da edo oztoporik jarri dute gizonen?

Beti-beti oztopoak daudela uste dut. Dena dela, kideok batera eratu eta bilakatu egin garenez, gure eztabaida askotan proposamen kolektiboak sortu dira. Horrez gain, erabakigarria izan da bertoko emakumeek emakume

eta politika bortitza are agerikoagoak dira, baina arazoa globala da, eta nekazari guztioi egiten digu eraso, baita munduko herritar guztiei ere, oro har. Azkenean, pertsonen eskubideen gainetik jartzen dituzte espekulaziozailen interesak.

Nekazarien Bidean, elikaduraren subiranotasuna proposatzen duzue. Nolako inplikazioak ditu alternatiba horrek emakumeentzat?

Herritarren alternatiba da, eta onura asko eskaintzen ditu. Herritarrak, gizakiak, erdigunean jartzen ditu eta ez eredu neoliberalak proposatutako kapital-metaketa.

Elikaduraren subiranotasunak bermatu egiten du ez dagoela elikaduraren subiranotasunik lortzerik, emakumeok berdintasunez parte hartzen ez badugu, elikagaien ekoizpenerako baliabideak baldintza berberetan eskuratzerik ez badugu eta gure jakintzak balioesten ez badira. Elikaduraren subiranotasunaren barruan ez dago emakumeen aurkako indarkeria inolaz ere onartzerik, eta ez dago

ingurumena salgaitzat hartzerik. Era berean, elikagaiak ere ez dira salgaiak, ezta emakumeek ere. Elikaduraren subiranotasunean, eredu neoliberalaren alternatiba eratzen da. Eredu neoliberalan, emakumeen eremua erabat ezegonkorra da.

Kapital-metaketa aldeko ereduak, emakumeek egiten dugun lana ikusezina da, eta ez dugu ordainsaririk jasotzen. Eredu neoliberal horretan, emakumeok erantzukizun ugari ditugu, nahiz eta gizarte osoak bere gain hartu beharko litzuzkeen: familia-giroko baterako erantzukizuna, umeak eta adinekoak zaintzeko erantzukizun kolektiboak... Gizartearentzako oinarriko lan asko bidegabeeriaz gutxiesten dira, eta lan horiek emakumeek egin ditugu betidanik.

Emakume nekazariari dagokienez, balio handikoa izan da biodibertsitatea zaintzea, kultura guztia igortzea eta balio handiko elikagai osasungarriak egiteko modu guztiak zabaltzea. Elikaduraren subiranotasunak hori guztia balioetsi eta bultzatu egiten du.

izateko kontzientzia politiko argi-argia eduki izana eta emakumeek taldean bertan aurrera egiteko daukaten premia nabarmendu izana.

Bestetik, azpimarratu egin nahi nuke gizonezko kide batzuk ere aldaketa-eredu horren alde egon direla eta beste balio batzuk dituen beste era bateko gizarte bat eduki nahi dutela etorkizunean.

Aliantzarik daukazue estatuko nekazarien gainerako sindikatuekin, emakumeek sindikatu horietan duten posizioa hobetzeko?

Mundu-mailan, Nekazarien Bidean parte hartzen dugu, eta, estatu-mailan, Nekazarien Bideko kideak diren beste erakundeekin gaude harremanetan, batez ere: EHNE, COAG eta SOC.

Era berean, erakunde horietako emakume kideekin batera, titularitate partekatua inguruko apustuak eta ekarpenak ere egiten ditugu, baita estatu-mailako araudien arloko beste era bateko ekarpen batzuk ere.

Horrez gain, mugimendu feministarekin eta, batez ere, Emakumeen Mundu Mar-

txarekin dituzue aliantzak. Zer ikasi duzue aliantza horretatik eta zer ekarpen egin diezu zuon sindikatutik?

Guretzat funtsezkoa da Emakumeen Mundu Martxarekin daukagun aliantza. Izan ere, gure ustez, emakume nekazariak gara, eta geure lanbidearekin lotutako aldarrikapenak dauzkagu. Ingurune zehatz batean bizi gara, eta baliabide edo azpiegitura gutxi ditugu, baina guztiok emakumeak gara, eta emakumeen borrokaren arloan garatzen dugu geure borroka. Martxan parte hartzean, geure aldarrikapen bereziak eraman ahal izan ditugu mugimendu feminista globalagora, eta, nola edo hala, mugimendu horretan parte hartzen dugu. Geuk ere badugu gorputzik, eta emakumeen arazo guztiak bat gatoz. Emakumeen aurkako indarkeria lehentasunezko gaia da, baita arlo guztietako emakumei ondasun erkidea eskuratzeko eman beharreko aukera, zapalkuntza guztien desagerpenari buruzko eztabaida eta gizartearen militarizazioaren inguruko kezka ere.

Emakume nekazariontzat oso kezagarria da ikustea nola ezarri den emakumei eta

mugimendu sozialei errua botatzeko estrategia. Batetik, era guztietako politika publikoak kentzen dira, gizarte osoaren kalterako; eta, bestetik, era guztietako estrategiak ezartzen dira, kontrolatzeko eta errua egozteko. Hori dela eta, gerrak ere sortzen dira leku askotan. Guk, emakume nekazariok, emakumeen borroketan parte hartu behar dugu. Ez gara gu eta haiek, guztiok emakumeak garelako.

Hain zuzen ere, zeure agerraldian aipatu duzu ez zatozela bat, diskurtsoan hiriko eta landa-ingurune emakumeen arteko banaketa egiten denean. Azalduko diguzu apur bat gehiago?

Nire iritziz, oso banaketa interesatua da, eta sistema patriarkaletik landu da bete-betean, emakumeok ahultzeko asmoz.

Nola diseinatu den kontuan hartuta, badiro landa-ingurune emakumeok geure kezke arduratu behar garela tradizioaren arabera sistema matxistak eman digun zeregina kolokan jarri gabe eta mugimendu feministatik aldendu behar garela. Ez gatoz bat horrekin, eta bete-betean jartzen dugu kolokan.

Gure borrokak mugimendu feministaren barruan egin behar direla aldarrikatzen dut. Zenbait arrazatako emakumeak gara, zenbait nortasunetako emakumeak gara eta gure bereizgarritasun guztiek mugimendu feminista aberasten dute. Gu ez gatoz bat banaketaren alde dagoen diseinu patriarkalarekin, hau da, talde bakoitzak bere gauzak egin behar dituela dioen sistemarekin: landa-ingurune emakumeok geure lanak egitea eta bide desberdinetatik joatea. Ez gatoz bat horrekin. Landa-ingurune emakumeen talde asko oso interesgarriak dira, gauza interesgarriak egiten dituzte eta oso emakume dinamikoak dira. Banaketa interesatuak, ordea, ez gaitu emakume moduan indartzen.





Alicia Reigada Olaizola

Elikaduraren Subiranotasunaren aldeko A-liatuak
Andaluzia (Estatu espainola)

ELIKADURAREN SUBIRANOTASUNAREN ALDEKO BORROKA JARDUKETA FEMINISTATIK

Testu honen hasieran, Andaluziako Elikaduraren Subiranotasunaren aldeko A-liatuak taldearen aurkezpena egiten da (Estatu espainola), gure taldearen jatorria, jardueraren printzipioak eta antolakuntzarako lan-lerroak zein diren labur-labur azaltzeko. Ondoren, jarduketa feministatik elikaduraren subiranotasuna (ESb) nola ulertzen dugun eta proposamen horrek nolako ondorioak dituen hausnartzen dugu. Azkenik, testuaren amaieran, elikaduraren subiranotasunerako eskubidearen aldeko borrokari eusteko orduan eta feminismotik garatzeko orduan Andaluzian dauzkagun zenbait erronka azaltzen dira.

1. Elikaduraren Subiranotasunaren aldeko A-liatuak. Aurkezpena.

Elikaduraren Subiranotasunaren aldeko A-liatuak taldea¹ erakunde eta ekintzaileen sarea da, herriek elikaduraren subiranotasunaren arloan duten eskubidearen defentsan daude inplikaturik eta taldea bera 2006an sortu zen, arlo horretan Andaluzian garatutako borrokekin batera. Hain zuzen ere, Mendebal-

deko Andaluziako (Sevilla, Cadiz eta Huelva) pertsonak eta erakundeak gara taldekideak.

Gure ustez, zergatik zen garrantzitsua antolatzea eta elikaduraren subiranotasunaren aldeko borrokarekin bat egitea? Andaluzian, Estatu espainoleko hegoaldean kokatutako eskualde periferikoan, honako fenomeno hauen ondorio larriak agertu direlako: eredu latifundista, Iraultza Berdea, emigrazioa, landa-ingurunearen exodoa, gure kostaldeetako nekazaritza intentsiboaren ezarpena eta, gaur egun, laborantza transgenikoak. Berezitasun horrek ageri-agerian uzten du nolako zeresana izan duen jorنالarien mugimenduak gure lurraldean eta nolako protagonismoa eduki duten lurrerako eskubidearen eta nekazaritza-eraldaketaren aldeko borrokek. Bertan, hain zuzen ere, Landa-ingurunearen Langileen Sindikatuak (SOC) sustatutako borrokak nabarmentzen dira. Horrez gain, etorkinek gizarte eta lanaren arloan dituzten eskubideen aldeko borrokak ere hartu behar dira kontuan,

¹ Hasierako printzipioei buruzko barne-hausnarketarako eta berrazalpenarako epealdiaren ostean, 'Elikaduraren Subiranotasunaren eta Generoaren Taldea' 'Elikaduraren Subiranotasunaren aldeko A-liatuak' bihurtu zen.

laborantza askotan lanindar nagusia direlako eta lan-esplotaziopean zein gizarte-bazterketapean bizi direlako Andaluziako landaguneetan. Era berean, oraindik ere enpresari handiei laguntzen dien ereduaren aurkako salaketak ere badira etengabeak, horren ondorioz nekazari txikiak multinazionalen (intsumo agroindustrialen kontrolatzaileen) eta banaketa-kate handien (prezioen inposatzaileen) nagusitasunaren menpe daudelako. Gainera, tokian tokiko ekosistemen eta ingurumenaren suntsipenaren aurkako mobilizazioak ere aipatu behar dira, baita nekazaritza-eredu horren ondorioz elikaduraren arloan sortutako segurtasunik eza ere.

Egoera hori kontuan hartuz gero, Nekazarien Bideak mundu-mailan herrien elikaduraren subiranotasunerako eskubidearen alde egindako proposamenari esker, gure lurraldean ere ireki da borrokarako etapa berria. Hori dela eta, funtsezko galdera egin dezakegu berriro: nolako garapen-eredua ezarri nahi dugu Andaluzian?

Batetik, argi eta garbi geneukan sareak eta aliantzak eratu behar zirela, landa-inguruneetik eta hirigunetik nekazaritzako elikagaitzaren eredu globalizatuaren ondorioen aurka elkarrekin borrokatzeko. Horrela, bada,

era guztietako mugimendu eta ibilbideetatik gentozen pertsonak eta taldeak elkartu gara: landa-garapen alternatiboaren eta nekazarien jakintzen berreskurapenaren aldeko ekimenak (esate baterako, Paulo Freire Sierra de Cádiz eta Sierra de Huelva landa-unibertsitateak), tokian tokiko hazien berreskurapenerako taldeak (RAS Andaluziako Hazien Sarea), jorنالarien sindikalismoa (Landa-inguruneke Langileen Sindikatuko Emakumeen Arloa), mugimendu feminista, etorkinen aldeko sareak, nazioarteko lankidetzaz zein elkartasunerako mugimenduak (CIC-Bata, Mugarik gabeko Albaitariak), mugimendu ekologista zein agroekologia (Ekologistak Martxan, La Ortiga) edo hirietan hiri-baratzeen zein kontsumo arduratsuaren inguruan eratzten ari diren taldeak.

Bestetik, Andaluziako garapen-eredua aldatzeko lan egiten dugun arren, Emakumeen Mundu Martxaren eta Nekazarien Bidearen ideiarekin bat gatoz, emakumeen, herrien eta erakundeen arteko aliantzak eratu behar direla diotelako. Hau da, jarduteko orduan, nazioarteko elkartasunaren printzipioa hartu behar da kontuan. Alde horretatik, taldearen jatorritik bertatik, batez ere Amerika Latinoan antolatutako emakume nekazarien, landa-inguruneke emakumeen eta emakume indigenen mugimenduak (eurekin izan dugu harreman handiena) funtsezko erreferentzia izan dira guretzat. Hain zuzen ere, Entrepueblos Elkarteak Sevillan antolatutako nazioarteko topaketaren ondoren sortu zen taldea, eta, bertan, 'Bartolina Sisa' erakundeko (Bolivia) eta Movimento dos Trabalhadores Sem Terra (MST, Brasil) emakume kideen esperientziak izan genituen ikasbide. Taldeak eta Entrepueblos Elkarteak Sevillan bertan elkarrekin antolatutako nazioarteko bigarren jardunaldietan ("Emakume nekazariak, lurra eta elikaduraren subiranotasuna. Itzaropena ereiten"), honako

erakunde hauetako ordezkariekin elkartzeko aukera izan genuen: Paraguaiko Emakume Langile Landatar eta Indigenen Erakunde Koordinakunde Nazionala (CONAMURI), Txileko Emakume Landatar eta Indigenen Elkarte Nazionala (ANAMURI), Movimento de Mulheres Camponesas (Brasil), Sindicato Labrego Galego (SLG) eta Andaluziako Landa-inguruneke Langileen Sindikatua (SOC). Horrez gain, honako erakunde hauetako kideekin ere elkartu gara: Emakumeen Mundu Martxa (MMM), Europako Nekazarien Bidea, Kubako Nekazarien Bidea, Dominikar Errepublikako Emakume Nekazarien Konfederazio Nazionala (CONAMUCA) edo Mozambikeko Nekazarien Bidea. Horri esker, ekarpen handiak jaso ditugu, taldean bertan elikaduraren subiranotasuna emakumeen eskubide eta eskarrietatik nola jorratuko dugun eztabaidatzeko.

2006. urtetik gaur arte, heldu egin gara, argiago daukagu nor garen eta geure propo-

samen estrategikoak egiten ditugu. Gure lana zenbait ekintza-lerroren inguruan dago antolatuta: 1) zabalkundea, salaketa eta sentsibilizazioa; 2) prestakuntza; 3) antolakuntza eta sareko lana; eta 4) eragin politikoa.

Antolakuntzari dagokionez, zenbait mailatako sareak egituratzea oso garrantzitsua dela nabarmendu nahi genuke. Tokian-tokian, ahalegin handia egin dugu, hirigunean zein landa-ingurunean ESb-ren aldeko borroka-esparruan parte hartzen duten talde eta erakundeekin harremanetan egoteko eta lan egiteko eta gizarte-mugimenduen agendan ESb-ren proposamena kontuan hartzeko. Horretarako, guretzat oso garrantzitsua ere bada beste gizarte-plataforma batzuetan parte hartzea: Transgenikorik gabeko Andaluzia Plataforma (PALT), Etorkinenganako Indarkeria Instituzionalaren aurkako Plataforma edo Beherapen Sarea, besteak beste.

Andaluzia mailan, zenbait ekimenetan in-



plikatuta gaude, arlo honetan Andaluzian lan egiten duten zenbait erakunde koordinatzeko. Ekimen horien artean, hain zuzen ere, 'Elikaduraren Subiranotasunaren inguruko Topaketa Andaluziarra' nabarmendu behar dugu. 2009. urtean egin zen Kordoban, eta, jarraipen moduan, bigarren topaketa egin zen El Coronilen (Sevilla). Era berean, taldeak berak estatu-mailako zenbait ekimenetan ere parte hartzen du, Herrien Elikaduraren Subiranotasunaren aldeko Aliantzaren (ASAP), esaterako.

Honako helburu hauek proposatzen ditugu lehen aipatutako lan-lerroen arabera:

- ELIKADURAREN SUBIRANOTASUNAREN aldeko sentsibilizazioa, salaketa eta ekintza soziala sustatzea nekazaritzako elikagaigintzaren garapen-eredu globalizatuaren alternatiba bideragarri moduan (patriarkala, ez-iraunkorra eta bidegabea da-eta).
- Herrien elikaduraren subiranotasunaren aldeko mugimenduen eskariak eta aldarrikapenak FEMINISMOTIK proposatzea. Horrela, bada, emakumeek borroka horretan duten protagonismoa onetsiko da, eta euren salaketak zein proposamenak hartuko dira kontuan: landa-ingurune eta hiriko emakume moduan; emakume nekazari, indigena edo etorkin moduan; emakume langile, langabetu, gazte eze-gonkor, adineko edo lesbiana moduan; eta herrien okupazioko, erbesteko eta gerra kapitalistetako emakume biktima moduan.
- SAREKO lanaren bidez, ALIANTZAK sustatzea eta sendotzea eta, horretarako, honako ALTERNATIBA hauek ELKARLOTZEA: landa-ingurunea/hiria, iparraldea/hegoaldea, ekoizpena/kontsumoa, tokian tokitik eta orokortasunetik eta mugimenduen artean (nekazariak, feministak, kapitalismoaren aurkakoak, ekologistak eta indigenak).

- Horrez gain, EZTABAIDA, EKINTZA eta ERAGIN POLITIKOA hiru frontetan suspertzea: barruan, hau da, gure talde eta erakundetan; gizarte osoan; eta merkatuaren zein instituzioen aurrean.



2. Elikaduraren subiranotasuna alternatiba moduan.

Gaur egungo eredu kapitalistaren egitura-zko krisiaren testuinguruan (ez da egoeraren araberako krisia), oso-oso agerikoa da nolako ondorio kaltegarriak eta desberdintasunak sorrarazi dituen nekazaritzako elikagaigintzaren eredu globalizatuak. Dena dela, are agerikoa ere bada herrien elikaduraren subiranotasunaren proposamena globalizazio kapitalistaren alternatibatzat hartu daitekeela.

Hasteko, gogoan eduki behar da herrien elikaduraren subiranotasunerako eskubideaz hitz egitean maila globalean nagusi den nekazaritzako elikagaigintzaren garapen-ereduaren alternatibaz hitz egiten dugula, Nekazarien Bideak proposamen hori FAOko Elikaduraren Goi Bileran jakitera eman zuenetik (1996) nola zehaztu den kontuan hartuta. Usteak uste, ez da nekazarien kontua bakarrik, ezta ingurumena edo elikaduraren segurtasuna bakarrik defendatzen duen aldaketa sektorialerako proposamena ere.

Aitzitik, aldaketa integralerako proposamena da. Hori dela eta, lehenengo eta behin, landa-ingurune zein hiriko eta hegoaldeko nahiz iparraldeko pertsonak, erakundeak eta mugimenduek parte hartzen dute borroka horretan. Oso gogoan eduki behar dugu nekazaritzako elikagaigintzaren eredu globalizatuak eragin handia duela gudan nekazari eta kontsumitzaile moduan, baina, horrez gain, oso kontuan ere hartu beharra dago garapen-eredu horrek natura arpilatzen duela, emakumeak zein langileak esplotatzen dituela eta herriak nahiz lurraldeak hartzen dituela mende.

Bigarrenez, proposamen horren ondorioz, zenbait borroka politiko eta sozial egituratu daitezke; esate baterako:

- Herrien autonomia-eskubidea.

- Nekazaritzako elikagaigintzako politikak zehazteko aukera (ekoizpenean, banaketan eta kontsumoan).
- Lurraren eta baliabideen banaketa (nekaritzaren eraldaketa).
- Herrien eta lurraldeen barne-premien araberako ereduaren defentsa eta ez multinazionalen zein agronegozioen interes ekonomikoen araberako:
 - Herrien elikaduraren subiranotasuna eta segurtasuna bermatzeko.
 - Tokian tokiko kulturak ez suntsitzeko.
 - Ez arpilatzeko eta ingurumena errespetatzeko.
- Era guztietako lan-esplotazioaren desagerepena.
- Baldintza duinetan emigratzeko eskubidea, baina ez emigratzeko eskubidea ere, hau da, pertsonen euren lurrian duintasunez bizitzeko daukaten eskubidea.

3. Elikaduraren subiranotasunaren aldeko borroken eta emakumeen borroken arteko bateratasuna.

Horrez gain, gure ustez, elikaduraren subiranotasunaren aldeko borroka feminista izan behar, ostantzean ez litzatekeelako gizartearen eraldaketarako alternatiba izango. Borroka horiek garatzeko orduan, arlo guztietan sexuen artean dauden desberdintasunak hartu behar dira kontuan, eta honako gai hauek ere izan behar ditugu hizpide: emakumeen autonomia, euren lan-baldintzak, euren migrazio-eskubideak edo elikagaien ekoizpenean duten zeregina.

Alde horretatik, elikaduraren subiranotasunaren aldeko nazioarteko mugimenduak egindako ibilbideari erreparatuz gero, nabarmendu egin behar da emakumeek zeresan handia dutela mugimendu horretan, emakumeen erakunde berezien bidez (feministak direla adierazi edo ez) eta erakunde zabalagoen



barruan. Era berean, mugimendu feministen eta landa-inguruneke zein hiriko emakumeen erakundeen artean tokian-tokian, eskualdean eta nazioartean sortzen ari diren aliantzak azpimarratu behar dira. Testuinguru horretan, hain zuzen ere, Emakumeen Mundu Martxaren eta Nekazarien Bideko kideak diren emakume landatar, indigena eta nekazarien erakundeen arteko elkarguneak sortzen ari dira gaur egun.

Zenbait mugimenduk eta borroka sozialek bat egitean sortutako emaitza denez, lehenengo eta behin mugimendu horren barne-heterogeneotasuna aitortu behar da. Beraz, batzuetan, 'Generoaren Arloa' edo 'Emakumeen Arloa' eratzen da nekazarien erakundeen edo jurnalarien sindikatuetan bertan, erakundeko kideak diren emakumeen lanari eta ahaleginari esker. Arlo horretatik, euren eskubideak aldarrikatzen dituzte barne-mailan, erakundeetan bertan eta langile edo nekazari moduan dituzten eskubide berezien esparruan (horren adierazgarri dira Sindicato Labrego Galego -SLG-, Landa-inguruneke Langileen Sindikatua -SOC- edo Brasilgo Lurrik gabeko Landa Langileen Mugimendua -MST-). Halakoetan, agerikoa da emakumeen eskariak euren sindikatu eta erakundeen eskari zabalagoetan hartzen direla kontuan eta nolako estrategiak erabiltzen dituzten hori lortzeko.

Beste batzuetan, nekazarien eta indigenen mugimenduetako emakumeek emakumeen erakunde bereziak sortzen dituzte (esate baterako, Bartolina Sisa Elkarte, CONAMURI, ANAMURI, MMC edo CONAMUCA). Oso interesgarria da aztertzea emakumeen erakunde horiek (landaingurunekeak, indigenak, soldatepeko langileak, ekoizle txikiak) nola egituratzen diren; lehenengo eta behin, euren artean; bigarrenez, elikaduraren subiranotasunaren aldeko mugimendu zabalagoekin: Amerika Latinoko Landa-inguruneke Erakun-

deen Koordinakundea (CLOC) eta Nekazarien Bidea (VC); eta, hirugarrenez, sare feminista zabalagoekin: Amerika Latinoko Emakume Indigenen Topaketak, Emakumeen Mundu Martxa edo Ekonomia Eraldatzeko Emakume Latinoamerikarren Sarea (REMTE).

Elikaduraren subiranotasunaren aldeko eremu horretan, honako hauexekin lotuta emakumeen taldeak ere badaude: mugimendu ekofeminista, agroekologiako proiektuak, tokian tokiko haziak berreskuratzeko proiektuak, elikaduraren autoaskitzarako proiektuak, landa-garapen alternatiborako ekimenak, kontsumo arduratsurako taldeak eta hiriko baratzeen proiektuak.

4. Beraz, zer lortzen da elikaduraren subiranotasuna jarduketa feministatik jorratzean?

Lehenengo eta behin, guretzat oso garrantzitsua da gure erreferentzia-esparrua kapitalismoaren aurkako borroka dela adieraztea, patriarkatuak forma zehatza hartzen duelako gaur egungo kapitalismo globalizatuaren eremuan. Dena dela, modu berean, argi eta garbi daukagu kapitalismoa kapitalismo patriarkala dela eta, horren ondorioz, lehenengoaren aurkako borroka ezin dira bigarrenetik aparte ulertu, nahiz eta elikaduraren subiranotasunaren aldeko mugimendu gehienek halaxe egiten duten. Izan ere, euren ustez, feminismoa zaharkituta dago edo bigarren mailakoa da edo borroka banatzen dituen gai arazotsua da, zuzenean.

Bigarrenez, gure iritziz, begirada feministaren agerpena zeharkakoa izan behar da mugimenduan: oinarrizko printzipioak, preskakuntza politikoa, eskarien eta aldarrikapenen motak, barneko egitura eta antolakuntza, borrokarako estrategiak, kanpainak eta ekintzak. Gai hori, hain zuzen ere, argi eta garbi azaldu zen MSTko Genero Sektorako arduraduna den Lourdes Vicenteri egindako

elkarrizketa batean. Bertan adierazten zenez, beste emakume kide batzuekin erakundeetan bertan emakumeen borroka indartzeko erabakia hartu zuenetik, ahalegin handia egin dute, Genero Sektoran eta arlo zein lerro politiko guztietan kontuan hartu dezaten, oinarrizko guneetan zein erakundeko zuzendaritza nazionalan.

Hirugarrenez, elikaduraren subiranotasunaren proposamena jarduketa feministatik jorratzean, honako honexen AURKAKO borroka bereziarekin egituratu eta berrezarri daitezke gorago aipatutako eskariak:

- Lurraren jabetzaren desberdintasunezko banaketa, gizonen esku jarraitzen du-eta.
- Gizonen eta emakumeen artean baliabideen kontrolean zein kudeaketan dagoen desberdintasunezko banaketa (jakintzak, prestakuntza, teknologia, haziak, produktuak, kredituen lorpena, diru-sarrerak).
- Emakumeen jakituriaren eta jakintzen gaitzespena ("berezko trebetasuntzat" edo "trebakuntzarik gabekotzat" hartzen dituztelako) eta patenteak egiten dituzten multinazionalen arpilaketa, emakumeak agrodibertsitatearen zaindari nagusiak direla kontuan hartuta.
- Landa-inguruneke soldatapeko emakume langileen larregizko esplotazioa.
- Emakumeek oraindik ere egiten duten lanaldi bikoitza, etxean bertan zein kanpoan; euren lana 'ez-lantzat', familia-buruaren lanaren 'laguntzat' hartzeko joera; eta gizonek beste prestazio sozial ez jasotzeko joera (gizarte-segurantza, pentsioak, langabezia).
- Txirotasunaren emakume-aurpegia, nekazaritza merkantilizatzean eta atzerriko transnazionalen esku dauden monolaborantzak hedatzean. Hori dela eta, emakumeek beste lanpostu batzuk lortzeko auke-

ra gutxiago dituzte, euren lan-baldintzak txarragoak dira are ardura gehiago dituzte etxean.

- Landa-inguruneke hirira nahitaez egin beharreko emigrazioaren eta monolaborantza intentsiboetaranzko immigrazioaren emakume-aurpegia. Bertan, hain zuzen ere, emakumeak, langile etorkinak eta indigenak eskatzen dituzte, batik bat.
- Bizimodu sozialari eusteko eta ugaltzeko, landa-inguruneke eta hiriko emakumeek euren familien, erkidegoen eta herrien elikadura zein osasunean garatzen duten funtsezko zereginaren ikusezintasuna.
- Emakumeen aurkako indarkeria-motak, etxean, lantokian eta gizartearen, oro har.
- Emakumeen antolakuntza sozial eta sindikala eragotzi eta euren erakundeetan proposatzen dituzten eskari bereziak isiltzen dituzten baldintzatzaile sozialak.
- Erakundeko zuzendaritzako karguetatik kanpo uzten dituzte, eta ez dira kontuan hartzen landa-ingurunean zein hirian antolatuta dauden emakumeen ekarpenak eta zeregina: agronegozioraren aurka, kontsumo arduratsuen alde, nekazaritzaren eraldaketaren alde, lan-baldintzen hobekuntzaren alde, nekazaritzako politika neoliberalen aurka eta herrien autonomiaren alde.

Azkenik, gogoan eduki nahi dugu feminismoaren helburu bakarra ez dela sexuen arteko berdintasuna lortzea, emakumeen eskubideak aldarrikapen sozialen zerrendako beste eskubide bat izatea edo emakumeen partaidetza-kuota ziurtatzea. Era berean, ez dago feminismoa generora mugatzerik ere. Aitzitik, feminismoa bera pentsaera eta mugimendu zabal-zabala eta anitza da, eta mundu-ikuskerak goitik behera aldatzea du helburu: nolako harremanak ditugun, nola parte hartzen

dugun eta nola ulertzen ditugun garapena, ekonomia, lana, osasuna, hezkuntza, kultura edo politika egiteko modua.

Elikaduraren subiranotasuna paradigmaren, bizimoduaren aldaketa moduan ulertu behar da eta ez bakarrik zenbait eskubideren aldeko borroka moduan. Modu berean, feminismoa bera gure gizartea eratzeko beste modu bat dela, 'bizi-etika' dela esan daiteke.

5. Andaluziarantz begira... Etorkizunerako zenbait erronka.

Andaluziako egoera ere bada nahikoa heterogeneoa, elikaduraren subiranotasunarekin lotutako ekimenei dagokienez. Bertan, honako hauexek hartzen dira kontuan: landa-ingurunekeo jorنالarien sindikatuen eta Nekazarien Bideko kideak diren nekazari txikien erakundeen lana (COAG eta SOC, esaterako); agroekologiaren arloko proiektuak; Paulo Freire Landa Unibertsitateek bultzatutako jarduera (Ronda, Sierra de Cádiz, Sierra de Huelva); bidezko garapen-eredu iraunkorren aldeko beste ekimen batzuk; mugimendu ekologista, ekofeminista eta beherapenekoa; hiriko baratzek; kontsumo arduratsurako taldeak; edo etorkinen zein garapenerako lankidetzaren aldeko erakundeen lana.

Horrela, bada, azken urteotan, elikaduraren subiranotasunak gero eta indar handiagoa

dauka erakunde politikoaren zein mugimendu sozialen agendan. Edonola ere, oraindik ere konpondu gabeko arazoa da mugimenduen artean desegituraketarik ez egotea eta borroka sozialak sektorializatzea. Hau da, oso zaila da elikaduraren subiranotasunaren helburua lortzea: zenbait borroka-ardatz egituratzen duen proposamen integrala eratzeta, alegia. Horretarako, sareen zein plataformak koordinatzen eta sendotzen jarraitu behar dugu, honako hauxe lortzeko:

- Borrokarako programa bateratua adostea.
- Indarrak (eta ahaleginak) bateratzea, erakundeei presioa egiteko.
- Sendotasun handiagoz egituratzea: prestakuntza, oinarritzko antolakuntza eta eragin politikoa; uanean uneko ekintza lekuratu hutsetan ez geratzeko eta eredu bera errotik bertatik aldatzeko.
- Proposamen alternatiboak taldean eratzeta.

Bestetik, erronka handia ere bada feminismoa ekimen eta mugimendu horietan kontuan hartzea. Arlo horretan, oraindik ere zer egin ugari dago, honako hauxe lortu ahal izateko:

- Borroka feministak eta elikaduraren subiranotasunaren aldeko borrokek inte-

gratzea.

- Emakumeen eta/edo feministen sareak egituratzea eta oraindik ere indarrean dauden arazoetako bati aurre egitea: askotan, landa-ingurunean zein hirian, feminismoaren inguruan sortzen den gaitzespena eta identifikaziorik eza.
- Hirietatik eta feminismotik elikaduraren subiranotasunaren alde egin ditzakegun ekintzak eta lana argiago zehaztea: antolakuntza, koordinazioa, prestakuntza, sentsibilizazioa, salaketa, mobilizazioa eta landa-inguruneetako esperientzien babesa, besteak beste.

Azkenik, guretzat ere oso garrantzitsua da instituzio neoliberalak borroka sozialak instrumentalizatzeko eta kooptatzeko egiten dituzten saialdiei nola aurre egin hausnartzea eta eztabaidatzea: elikaduraren subiranotasunaren proposamena eta emakumeen mugimendua, esaterako. Horretarako, gure iritziz, 'berdintasun' (neoliberalaren) nozioa jarri behar da kolokan, gaur egungo politiken oinarrian dago-eta (nekazaritzaren, migrazioaren, lanaren eta garapenaren arloan). Hori dela eta, argi eta garbi adierazi behar dugu garapen-eredu neoliberalaren esparruan berdintasun-politkarik ezartzerik ez dagoela.





Miriam Nobre

Emakumeen Martxako Nazioarteko Idazkaritzako koordinatzailea

2008an, Martxak 10 urte bete zituen. Zer da munduko hainbat herrialderen partaidetza daukan nazioarteko mugimendu zabal-zabala izatea?

Ez da batere erraza galdera horri erantzutea... Esate baterako, Brasilgo SOFen (Sempre-viva Organizacao Feminista), oso lan zabala egiten genuen herri-auzoetan. Horretarako, herri-emakumeek eurek eraturako feminismoa sustatzen genuen, ikuspegi feministadun emakume-mugimendu zabala lortu zitekeelakoan.

Mugimendu feministaren internazionalizazio-maila oso handia zen arren, guk ez geneukan non lekuraturik. Hala ere, bagenekien beharrezkoa bezain garrantzitsua zela. Beraz, Martxaren proposamena iritsi zenean, egiten genuen lanaren behar-beharrezko jarraipena zela uste izan genuen.

Politika egiteko ikuspegi hori bat zetorren une hartan bizi genuenarekin, mugimendu sozialok transnazionalen globalizazioari eta gobernuen zein enpresen intereserako inposaketei aurre egiten hasi ginelako. Epealdi horretan, hain zuzen ere, globalizazioaren aurkako mugimendua sortu zen. 1998. urtean, geure topaketa egin genuen, eta, 1999an, Munduko Merkataritza Antolakundeko



(MMA) goi-bileraren aurkako mobilizazioak egin ziren Seattlen. Horrez gain, munduko zenbait lekutan garatzen ari ziren erresistentziak ere eman zituzten jakitera.

Zenbait herrialdeetako talde feministek elkartzeko premia historikoa eta guraria ziztuzten. Izan ere, mugimenduaren beraren agenda egituratu nahi zuten, Nazio Batuetako prozesuari aurre egiteko agenda bakarrik eratu beharrean.

Hasiera batean, ez genekien oso ondo nola egin. Lehenengo eta behin, ekintza zuzena egitea erabaki genuen; kanpaina bat, esaterako. Gero, mugimendu moduan eratu ginenean, gure konfiantza-harremanak ekintza bateratuen bidez eratzeko eta indartzeko erabakia hartu genuen.

Horrelaxe sortu zen, ez zen aurretiaz antolatutako ezer izan.

Emakumeen Mundu Martxaren ekintza-esparruak zein diren azalduko diguzu?

Emakumeek Quebecen antolatu zuten lehenengo martxa txirotasunaren aurkakoa izan zen. 2000. urtean, taldeekin nazioarteko ekintza antolatzen hasi zenean, txirotasunaren eta emakumeen arteko lotunea ez ezik, indarkeriaren gaia ere agertu zen oso modu

nabarian, baina, batez ere, Bosnian gertatu zenagatik, bertan emakumeen aurkako indarkeria erabili zutelako gerrako arma moduan. Horrek ez du esan nahi lehen halakorik gertatzen ez zenik, baina une horretan hizpide nagusia izan zen. Orduan txirotasunaren eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako ekintza proposatu zen. Ondoren, geure herrialdeetan garatu genituen ekintzak, eta herrialde bakoitzean gertatzen zena sistematizatu genuen, nazioarteko hitzarmenak edukitzeko.

Indarkeriaren eta txirotasunaren aurkako borroka Emakumeek Gizakiei idatzitako Mundu Gutunean islatu genuen, eta, bertan, 5 balio ziren nagusi: elkartasuna, berdintasuna, askatasuna, bakea eta justizia.

Harrezkero, herrialde bakoitzaren lehen-tasunak kontuan hartuta, zehaztu egin genuen zer lan egiten genuen elkarrekin, eta lau ekintza-arlo ezarri genituen: emakumeen autonomia ekonomikoaren aldeko borroka, emakumeenganako indarkeriaren aurkakoa, herri-onuraren zein zerbitzu publikoen aldekoa eta bakearen nahiz desmilitarizazioaren aldekoa.

Emakumeen autonomia ekonomikoaren arloan, emakumeen lanaren eta lan-eskubi-deen dimentsioa hartzen da kontuan. Etxeko lanaz ari gara: "enplegu gehiago, lan gutxiago". Emakumeak etxeko lanaz gainezka daude, eta estatuak erantzukizun asko uzten ditu emakumeen esku, lan bateratuan zein familian bertan. Elkartasunean oinarrituta, emakume nekazari edo artisauekin lan egiten dugu, ekoizteko eta ekoizitakoa merkaturatzeko baldintzak ez dutelako. Makropolitika ekonomikotik, gainera, kanpo-zorra eta "merkataritza askeko" itunak ere baditugu hizpide.

Herri-onuraren eta zerbitzu publikoen aldeko lanaren arloan, naturaren pribatiza-

zioaren aurka, elikaduraren subiranotasunaren alde eta ur, osasun zein hezkuntzako zerbitzuen pribatizazioaren aurka borrokatzen gara. Dena dela, jakintzaren pribatizazioa ere landu nahi genuke sakontasun handiagoz, patenteen aurkako eta komunikaziorako eskubi-dearen aldeko borrokan, esate baterako.

Martxako kideak diren talde gehienek emakumeen aurkako indarkeriaren gaia jorratzen dute. Gero eta sarriagotan, etxeko edo familia-giroko indarkeriaren aurkako borroka ez ezik, salatu ere egin dugu emakumeen aurkako borroka tresna moduan erabiltzen dutela, borroka sozialak kriminalizatu nahi dituztenean eta emakume liderrak erailtzen dituztenean.



Desmilitarizazioaren arloan, gatazkak agerian jartzea dugu helburu nagusi, hau da, emakumeen bizimoduan nolako ondorioak sortzen dituzten, emakumeen erresistentzia nolakoa den eta euren erkidegoko bizimoduari nola eusten dioten. Batez ere, gatazketan

emakumeen aurkako indarkeria nola instrumentalizatzen duten aztertzen dugu, baina, era berean, gatazkaren prebentzioan nahiz konponbidean eta herrialdeen berreraikuntzarako lehentasunen zehaztapenean emakumeek nola parte hartu behar duten ere badugu aztergai.

Nolako ondorioak sortzen ditu nagusi den eredu neoliberalak emakumeen bizimoduan?

Eredu horren arabera, emankortasuna, merkatuan balioa daukana garrantzitsua da gizartearen funtzionamendu ekonomikoan, eta gainerakoa ezkutuan uzten da. Emakumeek etxean egiten duten lan guztiak lotura estua dauka ekonomia kapitalistaren funtzionamenduekin. Hala ere, ekoizpenaren eta ugalketaren artean dauden lotuneak ezkututzen dira. Beraz, seme-alabak, adinekoak eta, modu berean, gizonak zaintzeko eta sistemako langileak "hornitzeko", emakumeek etxean egiten duten lan guztia jarri behar da agerian. Horrez gain, erakutsi egin behar dugu lotune estu-estu daukala ekonomia kapitalistaren funtzionamenduekin: enpresak krisian dauden bakoitzean, langileei etekin handiagoa ateratzeko eta gainbalio gehiago lortzeko, langileen soldatek behera egiten dute. Joera hori, ordea, ez da hutsaren hurrengoa, horren ondorioz emakumeek zama handiagoa dutelako etxean, are lan handiagoa egin behar dute euren eguneroko bizimoduan.

Esate baterako, gure herrialdean, jende asko osasun pribatura joaten da, baina, krisi-garaian, sistema publikora jo behar dute ezinbestean, eta sistema hori gainezka dago. Orduan, emakumeak dira ilaran egunak eta egunak ematen dituztenak, asistentziarako hitzordua lortu ahal izateko.

Adibidez, enpresetan langileentzako jantokiak bazituzten, krisi-garaian itxi egiten di-



tuzte. Orain, beraz, etxean egindako jatekoa eraman behar dute, eta, oro har, emakumeak dira jateko hori prestatzen dutenak. Horiek guztiak, hain zuzen ere, emakumeen esku jarritako lanen adibide hutsak baino ez dira.

Peruko kide baten esanetan, 50eko hamarkadan herrialde horretako meatzaritzakonpainiek zituzten hitzarmenak kaltegarriak ziren herrialdearen subiranotasunari begira. Hala ere, gutxienez, enpresak langileentzako etxeak eraiki eta, lana ez ezik, zeharkako zenbait onura ere bermatu behar zituen. Neoliberalismoaren osteko oraingo hitzarmenetan, ordea, ez da halakorik eskatzen. Krisia ait-zakiatzat hartuta, enpresek euren irabaziei eusteko asmoz (beti-beti irabazi egiten dutelako!) erabiltzen dituzten estrategia guztiak langileen esplotazioa areagotzen dute. Horren ondorioz, gizonen esplotazioa ez ezik, emakumeena ere handitu egiten da, etxean jasaten dutena ere ahaztu gabe.

Agronegozioaren alternatiba moduan, Martxa elikaduraren subiranotasuna sustatzen ari da. Zer azterketa feminista egiten duzue elikaduraren subiranotasunari buruz eta nolako eragina du proposamen horrek emakumeen bizimoduan?

Elikaduraren subiranotasunaren gaia Nekazarien Bideko (LVC) kideak transgenikoen aurkako borroka sendoagoak egiten hasi zirenean iritsi zitzaigun. Izan ere, eztabaida sorrarazi zuten gizartean, eta, horri esker, nekazarien borroka ez ezik, gizarte osoarena izatea ere lortu zuten.

Hori dela eta, hausnarketa ugari egin genituen: nolako janariak jaten genituen eta, azkarrago ibiltzeko eta lana murrizteko, emakumeek janari izozturik edo "fast-foodik" erabiltzen zuten. Argi eta garbi ikusi genuen arazoa ez zela emakumeena, sukaldeko lana murrizteko ahaleginean, jendearen osasunari

eta nekazarien ekoizpen-baldintzei eusteko moduan egitea zelako garrantzitsuena.

Beraz, prebentziorako irtenbide publikoak ezarri behar zituen estatuak, eta gizonen zein emakumeen arteko lan-banaketa konpondu behar zen etxe bakoitzean. Gure ustez, etxeko lanaren gaia agenda politikoa berriro lekuratzeke aukera aparta zen.

Gure iritziz, elikaduraren gaiari esker, etxeko lanaren arduraren emakumeek zutela aldarrikatu genezakeen berriro. Oso interesgarria izan zen, gizonezko kide batzuek honako hauxe esaten zigutelako: "hasiera batean, zuok, emakumeok, transgenikoen aurkako borrokan gure aliatuak izango zinetela uste genuen, baina, azkenean, eztabaidari eman zenioten buelta!". Oso prozesu ona izan zen, une horretan merkatu-gizartearen merkantilizazioari buruz eztabaidatzen ari ginelako, bere dimentsio guztiak kontuan hartuta. Gure usteetan, oso interesgarria zen elikaduraren subiranotasunak merkatu-gizartearen kritika egitea.

Oso argi ikusi genuen emakumeen eskubideen aldeko borroka eta elikaduraren subiranotasunaren aldeko borroka oso lotuta zeudela. Horrez gain, gure "etsaiak", gure borrokaren helburu ziren enpresak, berberak ziren. Esate baterako, txertoen bidez jarritako metodo antisorgailuen aurkako ekintzak jartzen genituen abian, emakumeek euren gorputzaren gaineko kontrola galtzen dutelako medikuaren mesedetan. Enpresa erantzuleak, gainera, hazi transgenikoak, herbizidak... ekoizten zituzten berberak ziren. Enpresa horiek, hain zuzen ere, oso estrategia egituratuak zituzten, eta mugimendu sozialok ere halako estrategiak eduki behar genituela konturatu ginen.

Bestetik, elikaduraren subiranotasuna alternatiba paregabea zela ere uste genuen, inolako zalantzarik gabe!

Non dago Nekazarien Bidearen eta Emakumeen Mundu Martxaren arteko aliantzaren jatorria?

Nekazarien Bideko (LVC) erakundeetako emakume askok Martxan (MMM) parte hartzen zuten. Hala ere, honako hauxe zen jokabidea: LVCKo emakumeak MMMko kideak ziren, "emakumeen gaiak" lantzen zirenean; esate baterako, emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka. Nekazaritzari buruzko gaitan, ordea, euren erakunde nekazariekin lan egiten zuten. Beraz, MMM elikaduraren subiranotasuna eta LVC emakumeen aurkako indarkeria jorratzen hasi zela ikusi zutenean, joko kanpo geratu ziren, nolabait esateko.

Zenbait herrialdetan, Martxak eta Nekazarien Bideak mugimendu sozialen esparru edo gune berberetan lan egiten zuten: Munduko Gizarte Foroa, mugimendu sozialen agendaren eraketa edo miseriaren aurkako borroka. Hori dela eta, aliantza estrategia egitea proposatu zen. Horrela, bada, elkar indartzea lortu genuen, ahulduta zegoen herrialdeetan, esaterako, LVCKren eskutik sendotu ahal izan



zelako Martxa.

Gure iritziz, harreman hori zenbait pertsonatan zegoen pilotuta, eta, modu berean, LVCKko koordinazioaren zein Martxako koordinazioaren arteko harremanak ere baziren garrantzitsuak. Bestetik, argi zegoen zenbait eskualdetan, Amerika Latinoan, esaterako, aliantza hori beste leku batzuetan baino garrantzitsuago zegoela.

Guretzat, betidanik izan da lehentasunezkoa LVCKko emakumeekin aliantza edukitzea. Aliantza hori, gainera, bi mailatan ematen da: LVC osoarekin eta bertako Emakumeen Batzordean antolatutako emakumeekin. Hartara, gu geu ez gaituzte aitzakia moduan erabiltzen, euren proposamenak zilegitasunik gabe uzteko.

Prozesu hau eratzen ari denez, erronkak daude beti. Ez da batere erraza proposamenak tokian tokira eramatea, betidanik feminismoarekin eta bere esangurarekin gertatu den bezala. Aliantza hori zehaztu egin behar da. Prozesu motel bezain zaila den arren, aurrera doa apurka-apurka.

Nola lan egiten duzue mugimendu mistoekin, proposamen feministak kontuan hartu ditzaten?

Orain, Mugimendu Sozialen Batzarra prestatzen ari gara Dakarren (Senegal), eta konpromiso-mailan aurrera egin behar dugula ari gara eztabaidatzen.

LVCekin egindako aliantzaren bidez, ondo baino hobeto ikasi dugu arlo formalean gertatzerik ez dugula. Prozesu honen bitartez, gu geu eta Nekazarien Bidea bera eraldatzea lortu behar dugu.

Truke-prozesuak areagotu nahi genituen beste mugimendu batzuekin, Mugimendu Sozialen Batzarrari zabaltasun handiagoa emateko.

Gure ustez, mobilizazio-egunak ez ezik,

zenbait mugimenduren inplikazioa eta lan-kidetza dauzkaten prozesuak ere zehaztu beharko genituzke, benetako prozesu horiek indartu ahal izateko.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka izan zen zehaztutako ardatzetakoa. Nolanahi ere, jende gehiagoren aurrean gizarteratu genuenean, emakumeen aurkako indarkeria gai bateratua ez zela adierazi zuten zenbaitek eta gai bateratuak baino ez genituela landu behar; desberdintasunen aurkako borroka, esaterako. Emakumeen aurkako indarkeria mundu guztiarekin zerikusia duen arazoa izango ez balitz bezala!

Topaketan egin zenuen agerraldian, herrien autonomia eta emakumeen autonomia banaezina zela adierazi zenuen...

Jakina, oso-oso lotuta daude. Emakumeen subiranotasuna eta herrien subiranotasuna prozesu sozial beraren osagaiak direla onartu beharra dago.

Batetik, ezker tradizionalaren ikuspegia dugu, eta, horren arabera, herriak emakumeen gaintetik daude, sektore horien ustez emakumeen borroka herria banatzen duelako. Bestetik, feminismoaren korrante tradizionala dugu, eta, bere esanetan, geure herrien borroka egiten badugu, erakunde mistoen logika patriarkalaren menpe egongo gara, eta ez diogu inolako lehentasunik emango emakumeen borrokari.

Emakumeok, ordea, ez gara emakumeak egun batean; eta herria, beste batean! Bi gauzak gara beti. Helburua ez da leialtasuna banatzea, emakume-izaerari edo gureak diren beste nortasun batzuei lehentasuna ematea (esate baterako, indigena izatea edo euskalduna izatea)...

2010ean Emakumeen Martxaren nazioarteko 3. ekintza egin zenutenez, zer nabar-



menduko zenuke?

Ekintza hau 2006an hasi ginen prestatzen. Garai hartan, koordinazio nazionalek gogorrago lan egin zezaketela uste genuen. Zenbait herrialdetan aldi bereko ekintzak eduki genitzakeela uste genuen.

Zenbait ekintza-mota egongo ziren herrialdeetan, baina, ekintza horien guztien bitartez, mugimendu-idea adierazi nahi genuen, eta lurraldeen okupazioa jorratu nahi genuen. 54 herrialdetan egin genituen ekintzak, eta, batzuetan, martxak izan ziren, Brasilen, esaterako. Oso ekintza desberdinak izan ziren, baina, oro har, argi ikusi genuen gehienetan koordinazio nazionaleri eman zietela aukera, eremu ezagunetik, erosotasunetik irteteko, haratago joateko eta erronka berriei aurre egiteko. Malin, adibidez, herrialdeko iparraldeko gatazka-gunera joan ziren; Pakistanen, bertan gertatutako zenbait atentatuen ostean antolatuta zuten ekintza... Herrialde bakoitzean, aurrerapausoak eman zituzten, beraz.

Bestetik, 2008an, Martxa prestatzeko topaketan erabaki genuen Kongoko Bukavuko ekintza amaitu behar genuela. Nik neuk zailantza asko nituen, oso zaila zelako jendea-ri ekintzaren berri ematea eta ekintza bera abian jartzea, gatazkapean dagoen herrialdea dela kontuan hartuta... Edonor beldurtzeko modukoa zen, baina lortu egin genuen.

Izan ere, eskualdeko ekintzak nahikoa ondo joan ziren: Amerikan, Kolonbian gertatutako ekintzaren bidez; Asian egindako ekintzaren bitartez; eta Turkian abian jarritako ekintza europar interesgarriaren bidez. Bazirudien zailena lortu nahi genuela.

Hori guztiori ondo joan zen, eta, horretarako, emakumeen laguntza baino ez geneukan, herrialde bakoitzeko emakumeekiko konfiantza, alegia. Haiekin lan egin nahi genuen, haien antolakuntza sendotu nahi genuen eta

asko eta asko ikasi nahi genuen eurengandik. Mundu guztiak oso-oso zaila zela esaten zigen.

Nire ustez, oso lorpen handiak izan ziren, are gehiago nolako indar-korrelazioa geneukan kontuan hartuz gero. Emakumeei ulertarazi nahi genien zer zen mugimendu sozialeko kidea izatea, askok eta askok txintik ere ez zekitelako. Batzuek mugimendu sozialak dauzkaten herrialdeetan jaio garenez, badirudi gertakizun "jakina", naturala dela. Edonola ere, zenbait herrialdetan, muturreko kontrol-egoerak bizi dituztenez, beste emakume batzuei begiratzen eta entzuten hasteko aukera ezagutu beharreko mundu berria da erabat. Alde horretatik, nire balioespina oso ona da, inolako zalantzarik gabe.

Bestetik, militarizazioaren gaia ere proposatu ahal izan genuen, gatazkapena dauden herrialdeetan eta gainerako herrialde guztietan. Era berean, militarizazioa euren bizimoduan agerpen handia duela aztertzeo aukera ere eskaini genien emakumeei.

Orain, azken urtea ebaluatzen ari zaretela kontuan hartuta, zein dira zuon erronkak?

Erronketako bat jarraipena ematea da. Leku bakoitzean, emakumeek gudanako konfiantza izan dute, eta eurekin egotea nahi dute, bideko urrats bakoitzean laguntzea, alegia. Kolonbiako erkidegoetako emakumeek, Istanbulen gurekin batzartutako Kurdistango emakumeek, Kongoko emakumeek... eurekin jarraitzea nahi dute, euren prozesuak babestea.

Ekintzaren ondoren, beste herrialde batzuetako emakumeek, Saharakoek eta Palestinakoek, esaterako, elkarrekin zenbait egingo zutela adierazi zuten. Era berean, Honduras eta Haiti ere hartu behar ditugu kontuan, baita Boli Kostako egoera ere. Niretzat, esaterako, oso-oso kezagarria da bertako egoera.

Martxaren agerpena daukan herrialde batean gatazkaren bat sortzen bada, zenbait egin behar dugula uste dugu, bertan dauden kideei elkartasuna adierazi behar diegula. Martxaren agerpena duten zenbait herrialdetan, erresistentzia dauden emakumeek ekarpen handiak egin ditzakete.

Bestetik, herrialde bakoitzeko errealitate zehatzei begira zentzuzkoak diren ekintzak garatu nahi ditugun arren, erantzun globalagoa ere eman nahi dugu aldi berean. Dena dela, oraindik ere ez dakigu nola egin behar den. Alde horretatik, niretzat Nyéleni, elikaduraren subiranotasunari buruzko foroa, erreferentzia argia da, prozesu politiko sendoa egin daitekeela egiaztatzeko. Horrela, bada, egoera gatazkatsu bakoitzari elkartasuna adierazteaz gain, emakumeen partaidetza eta begirada feminista indartu ahal izango dira, gatazkak konpontzeko orduan. Edonola ere, oraindik ez dakigu nola egin. Pentsatzen, balioesten eta eztabaidatzen ari gara. Bestetik, emakumeen beste mugimendu batzuk ere lekuratu nahi ditugu, gaian interesa duten beste mugimendu sozial batzuk. Horrela, bada, prozesu politiko orokorragoa egin ahal izango dugu.

Beste erronka batzuen artean, honako hauexek nabarmendu behar ditugu: mugimendu iraunkorra izatea, koordinazio nazionalak indartzea eta euren herrialdeetan benetako zentzua edukitzea. Gure agerpena duten herrialdeetako emakumeei sentiarazi behar diegu euren toki-errealitatetik Martxak nazioarteko elkartasun-mugimendu moduan hartzen duela indarra.

Azkenik, zenbait erronka ditugu erakunde-berari begira. Horretarako, 2011. urtearen amaieran, zenbait topaketa egingo ditugu Filipinetan, gure estatutuei buruzko erabakiak hartzeko eta 2013an idazkaritza beste herrialde baten esku uzteko. Hartara, indartu egingo gara, eta mugimendua iraunkorra izango da.



“Elikadura Subiranotasunari Buruzko Hausnarketa Feministak” Nazioarteko topaketaren ondorioak

Bilbo, 2011ko apirila

2011ko apirilean, “Elikaduraren subiranotasunari buruzko hausnarketa feministak” topaketaren esparruan, zenbait erakunde elkartu ginen, elikaduraren subiranotasunaren agendan ikuspegi feminista kontuan hartu behar zela aztertzeko.

Jardunaldiak elkarren artean lotutako lau azterketa-talderen arabera egituratu ziren:

- Agronegozioak emakumeen eskubideak urratzen dituela aztertzea.
- Feminismoak elikaduraren subiranotasuneari egindako ekarpenei buruz hausnartzea.
- Elikaduraren subiranotasunaren arloan ditugun proiektuak berriro zehaztea, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuneko harremanetan aldaketak sustatu ahal izateko. Talde honetan, aztertu egin nahi genuen elikaduraren subiranotasunarekin lotutako prozesuak sendotzeko asmoz zenbait GGKEk egindako lankidetzaren proiektuek emakume nekazarien bizimoduan aldaketa handiak eragin dituzten ala ez eta gizonen zein emakumeen arteko botere-harremanetan eragin ona eduki duten ala ez.
- Erakunde mistoen eta emakumeen erakun-

deen jarduketak onak eta esperientziak trukatzeko, elikaduraren subiranotasunaren aldeko emakumeen aliantzak indartzeko.

Topaketan bertan sortutako hausnarketa, eztabaida eta eskari nagusiak:

Sortutako hausnarketak lau gairen arabera egituratu ditugu: agronegozia eta baliabideen lorpena, nekazaritzako politikak, lanaren banaketa sexuala eta nekazarien erakundetako erresistentziak eta gizonen zein emakumeen arteko botere-harremanak.

Agronegozia eta baliabideen lorpena :

Emakumeen eskubideak behin eta berriro urratzen dituzte, iparraldean zein hegoaldean, landa-ingurunean nahiz hirietan. Genero-desberdintasunek gizaki guztien artean dute eragina. Neoliberalismoak oso aliatu ona dauka patriarkatuan, emakumeak esplotatzeko orduan. Agronegozia bera ere eredu harraparia bezain markantizatzailea da, eta sistema horiek tresna moduan erabiltzen dute, lurrak, nekazariak eta emakumeak esplotatzeko.

Sistema horren ondorioz, gosea eta txi-

rotasuna sortu dira milioika lagunen artean, eta, bien bitartean, gutxi batzuk baino ez dira aberastu. Lurren higadurak, biodibertsitatearen suntsipenak eta kutsadura agrokimikoak elikadurarako eskubidea milioika lagunen bizimodua jartzen dituzte arriskuan. Dena dela, horrek guztiorrek eragin berezia du emakumeen artean, leku askotan familia-arloko eta biziraupenerako nekazaritzaren bermeak badiara ere. Hain zuzen ere, agronegozioak eragin desberdina du gizonen eta emakumeen artean. Horren adierazgarri, oso-oso larria da nolako eragina duten agrotoxikoen osasunean, besteak beste, emakumeen ugalketa-zikloa eta osasun sexuala aldatzen dituzte-eta.

Emakumeek lurra eta beste baliabide natural batzuk (ura eta haziak, esaterako) esku-ratzeko daukaten aukerari dagokionez, oraindik ere ageri-agerikoa da lurren titularitatea konpondu gabeko arazoa dela emakume nekazarietzat. Legeak onartzea nahikoa ez denez, euren betearazpena ere eskatu behar dugu. Esate baterako, Lurren Titularkidetasunari buruzko Legea dago Euskadin, baina oso zaila da emakume baserritarrek horren berri edukitzea eta titularitate horrek ematen dizkien eskubideak zein diren jakitea (erretiroa eskuratzeko aukera, adibidez).

Bestetik, hazien patenteen ondorioz, emakumeen jakintza eta modu autonomoan ekoizteko bitartekoak desjabetzen ari dira. Topaketan bertan adierazi dugunez, emakumeen betiko jakituria berreskuratu beharra dago, ekoizpen-eredu iraunkorragoa ezarri ahal izateko.

Emakumeek elikagaien ekoizpenean egin duten ekarpena onesteko eskatu nahi dugu, baita lurak birbanatzeko eta baliabideen lorpenerako aukera emateko ere: finantziazioa, prestakuntza, informazioa eta atsedenaldira (lanaldi bikoitza).

Topaketan bertan adierazitakoaren arabera, agronegozioaz hitz egitean, oso garrantzitsua da sistemari eusten dioten pertsona guztiak kontuan hartzea, baita administrazio eta politikari guztiak ere. Hori dela eta, merkatua ez ezik, administrazioak eta euren politika publikoak ere salatu behar dira.

Alde horretatik, nekazaritzako politikari buruzko gaia ere izan zen garrantzitsua topaketan bertan.

Nekazaritzako politikak:

Nekazaritzako politikak ez dituzte desberdintasuneko baldintzak aldatzen, eta ez dute berdintasunaren sustapenerako aurrekonturik esleitzen. Politika horiek ez dituzte genero-estereotipoak aldatzen, eta ez dute kolokan jartzen ekoizpen-ereduak emakumeen artean daukan eragina. Emakumeak "ezkutuan" daude nekazaritzako politika publikoen ikuspegiari; PACen, esaterako. Hori dela eta, eragin kaltegarria dute botere-harremanetan.

Politika horiek emakume nekazarien zerregina gutxiesten dute, landa-ingurune garapenerako subjektu aktibo eta erabakigarri moduan. Belén Verdugok zioen bezala (COAG eta Ceres Landa-ingurune emakumeen konfederazioa) politikaren aldetik oso errentagarria

da emakumeak "erakuslehoan" jartzea eta jarduera egokiaren, berrikuntzaren, modernizazioaren eta landa-ingurune sustapeneraren adibide moduan aipatzea eta, gero, emakumeek eurek eredu neoliberalaren aurrean elikagaien ekoizpenean daukaten zeresanari buruz benetan eztabaidatzeko prest ez egotea. Egia esan, nekazaritzako eta landa-ingurune politiken emaitzek ez dituzte euren bizi-baldintzak hobetzen, eta ez dituzte desberdintasunak murrizten. Eskubideen berdintasuna ez da lehentasuneko sektore honetan, politikak korporazioen, bioteknologiaren lobbyen eta ekoizpeneko zein elikadurako baliabideen pilaketaren zerbitzura daudelako.

Landa-ingurunean, nabari-nabaria da gizarte-zerbitzuak eskuratzeko mugak daudela, emakumeak baldintza berberetan gizarera-

tzeko eta euren larregizko lan-karga arintzeko.

Masen komunikabideak oso lagungarriak dira, landa-ingurune emakumeen ikuspegi biktimitari errentagarritasuna ateratzeko, helburu alderdikariak betetzeko eta patriarkatuari nahiz agronegoziorik buruzko eztabaida geldiarazteko. Guretzat oso kezkarriak ziren "emakumeen naturalizazioaz" edo "naturaren emakume-aurpegiak" hitz egiten duten diskurtso esentzialistak.

Politika publikoen korrante nagusiaren orientazioa aldatu beharra dago. Testuinguru horretan, emakumeek bete-betean borrokatzen gara, agerikoak izateko eta eskubideak zein askatasunak lortzeko. Historiak, ordea, anonimatuaren uzten gaitu, gure gorputzak gauza bihurtzen ditu eta gure lana esplotatzen du.



Hausnarketa guztietan hizpide izandako hirugarren gaia lanaren banaketa sexualari buruzko izan zen.

Lanaren banaketa sexuala:

Ekizpenaren arloa eta ugalketaren arloa banatzen dituen sistema kritikatzeko dugu, euren arteko lotuneak onartu gabe plano bereizi bezain isolatuetan kokatu eta hierarkizatu egiten dituelako.

Alde horretatik, ekonomia feministak "lana" eta "enplegua" nozioak ezartzen ditu, eta ugalketa sozialerako zereginak sartzen ditu lanaren barruan. Elikaduraren subiranotasunarentzat funtsezkoa izan behar da batez ere emakumeek egindako lanen balioa aitortzea.

Zaintzen gaia oinarritzeko da proposamen feministetan. Ekonomia feministarentzat, oso garrantzitsua da elkar zaindu behar duten pertsonen arteko menpetasuna dagoela egiaztatzea. Mugimendu sozialen agendan jarri behar dira etxeko lanen eta zaintzen gaia. Gai hori jorratu ezean, ez dago eredu aldatzerik.

Edonola ere, zeregin horiek balioetsi egin behar dira, baina partekatu ere egin behar dira, aldi berean. Ezinbestekoa da lan-kargak birbanatzea (ordainpekoak eta etxeokak). Emakumeen Mundu Martxako Miriam Nobreren esanetan, "gizon eta emakume guztien artean banatu behar dugu lana", hau da, baterako erantzukizuna landu behar dugu. Alde horretatik, nekazaritzako zereginak gizonen eta emakumeen artean banatzen agertzen dira aurreiritzi sexistak ere gainditu behar ditugu; esate baterako, gizonen makina astunak gidatzen dituzte, eta emakumeek marrubiak biltzen dituzte.

Bestetik, tradizioari begira, landa-inguru-
nean eskulan merke moduan instrumentaliza-

tu dituzte emakumeak, eta, gaur egun, egoera hori oso ohikoa da emakume etorkinen artean (Andaluzian, adibidez). Gaur egun, emakume etorkinak integratu behar dira erakundeetan, nekazaritza-arloko errealitatea direlako.

Azkenik, nekazarien erakundeetako gizonen zein emakumeen arteko botere-harremanak eta berdintasunaren aldeko aldaketaren ondorioz sortutako erresistentziak izan genituen hizpide nagusi.

Nekazarien erakundeetako erresistentziak eta gizonen zein emakumeen arteko botere-harremanak:

Oso garrantzitsua da emakume nekazarien jabekuntza lortzea eta emakumeak eurak nekazarien erakundeetako erantzukizun-postuetan egotea. Beraz, ezinbestekoa da:

- Ekintza positiboak eustea.
- Erakundeetan parekotasuna ezartzea.
- Emakume nekazarietako prestakuntza bermatzea.
- Politiken eragina genero-ikuspegitik aztertzea, emakumeen artean sortutako eragin kaltegarriak neutralizatzeko.
- Zeharkako berdintasun-politikak sustatzea.

Soraya Gadea Nikaraguako janari-saltzaila da, nekazaritza-kooperatiba bateko kidea da eta elikaduraren subiranotasunerako proiektuko onuraduna da. Bere esperientzian oinarrituta, onartu egin zuen hasiera batean gizonak emakumeen autoantolamenduarekin bat ez zetozela. Nolanahi ere, jarrera hori aldatu egin da, gizonen antolamenduaren ondorioak onak izan direla ikusi eta emakumeek jabekuntza lortu duten neurrian.

Erakunde mistoetan, sindikatuetan, esaterako, emakumeentzat oso zaila da botere-postuetara iristea.

Gure gizarteetan, genero-berdintasuna bermatu nahi izanez gero, geure erakundeetan bertan begiratu behar dugu, eta aldaketak egin behar ditugu, emakumeek erabaki politikorako guneetan duten partaidetza berdintasunezkoa dela bermatzeko.

Belén Verdugok azaldu zigunez, nekazaritza-mundua gizonen esku dago. Horren ondorioz, "erakunde mistoetan erabakiak hartzeko parekotasuna geldiarazten dute, garrantzi handieneko gaiak esperientziadun gizonen buruzagien esku utzi behar direlakoan. (...) Emakumeon borroka guk geuk eraturako bidea da oraindik. Emantzipazio zaila da, eta eremu pribatuen zein erakunde mistoen inertzia gainditu behar du, hereditutako pribilegiadun gizonen itun sozialean jarraitzen dutelako"

"Elikaduraren subiranotasunari buruzko hausnarketa feministak" topaketaren ondorioak

Hausnarketa horien guztien arabera, zenbait ondorio atera genituen:

- Lehenengo eta behin, onartu egin behar da emakumeen aurkako indarkeriaren desagerpena agenda feministako puntu estrategikoa dela eta gizarte-aldaketarako edozein estrategiatan kontuan hartu behar dela ezinbestean.
- Instituzioek emakumeen aurkako indarkeriaren gaia kooptatu egin dutela esan beharra dago. Mugimendu feministak bete-betean bizi izan du prozesu hori. Indarkeriaren aurkako diskurtsoan, instituzioek funtsezko kontzeptua utzi dute kanpoan: emakumeak zapaltzeko tresna dela indarkeria. Izan ere, egoera zehatzetan zenbait emakumeren artean eragina zeukan "gaixotasuna" zela azaldu ziguten.

- Diskurtso hori nagusi denez, mugimendu sozialetan, instituzioetan eta GKE-etan bertan ere azaltzen da. Beraz, emakume guztiok salatu egin behar dugu emakumeen aurkako indarkeria sistemako menderakuntza-tresna dela. GKEon erronketakoa da landa-ingurunekeo genero-indarkeria sakon-sakon aztertzea. Oso garrantzitsua da onespren sozialaren gaia ere kontuan hartzea; esate baterako, emaztea jotzen duen gizona ezin da nekazari ekologikotzat hartu.
- Bigarren, onartu egin behar da funtsezko eta beharrezko lotunea dagoela feminismoaren eta elikaduraren subiranotasunaren artean.
- Elikaduraren subiranotasunaren eta biziraupenaren arteko lotunea bat dator zainketaren ekonomiaren teoria feminista-rekin. Bi teoriak aldarrikatu egiten dute ez dela merkatuko prezioa izan behar gauzan balioa zehazten duena. Bi proposamenek, beraz, merkatuen lehentasunezko zeregina kolokan jartzea, biziraupena lehenestea eta lanaren banaketa sexuala bertan behera uztea dute helburu.
- Elikaduraren subiranotasunaren eta ikuspegi feminista kritikoaren araberak, kapitalismoak ez du behar besteko gaitasunik (Amaia Orozcok dioen bezala), herritar guztientzako bizi-baldintza duinak sortzeko.
- Antzeko arazo sakonaren inguruko ikuspegian bat datozen (biziaren zentroa merkaturatzea), feminismoak eta elikaduraren subiranotasunaren defentsak proposamen osagarriak dituzte, estrategia bateratuak eratzeko.
- Hirugarren, defendatu egin behar da herrien subiranotasuna eta emakumeen autonomia banaezinak direla.
- Herrien subiranotasuna eta emakumeen

subiranotasuna borroka banaezinak dira. Beraz, ezinbestekoa da borroka orokorren eta borroka zehatzen arteko bereizketatik irteeta.

- Herrien subiranotasunaren aldeko borrokan, beti-beti emakumeen autonomia hartu behar da kontuan. Historiari begira, askotan ezker tradizionalaren borroka auzi "globala" lehenetsi du, emakumeen auziaren aldean. Bizkaiko Emakumeen Asanbladako Maitena Monroyk zioenez, "ezkerrak feminismoari egindako traizioen historia" da.
- Elikaduraren subiranotasunaren ondorioz, mundu-ikuskerak aldatu beharra dago. Neoliberalismoak sustatutakoa ez beste eredu baten aldeko apustua egin behar da, bidezkoagoa den mundurantz abiatzeko. Apustu hori, gainera, globala izan behar da, eta ez ditu akats berberak egin behar, hau da, ezin du emakumeen eskubideen aldeko borroka bertan behar utzi, hain lehentasunezkoa ez delakoan, "geroago" lortu beharreko zerbait delakoan. Bi borroka eskutik joan ahal eta behar dira.
- Aldarrikatu egiten dugu elikaduraren subiranotasunerako eredurantzko sistema-aldaketa feminismoaren eskutik joan behar dela.
- Elikaduraren subiranotasuna ez da nekazarien kezka bakarrik, gu guztion artean duelako eragina. Emakumeok protagonista gara borroka horretan. Alde horretatik, landa-ingurunekeo eta hirietako emakumeen artean egindako bereizketa ere gainditu behar dugu, emakumeak borroka bereizietan banatzeko estrategia da-eta. Landa-ingurunekeo eta hiriko sareak egitura behar dira, baita mugimendu feministarekin ere. Agronegozioaren aurkako borroka eta patriarkatuaren aurkako borroka egituratu behar dira, hain zuzen ere.

Hona hemen borroka egituratzeko oinarriko printzipioak:

- Feminismoa.
- Internazionalismoa (globalizazio kapitalistari aurre egiteko erresistentzia globalak).
- Antikapitalismoa.

Kapitalismoaren aurka ez ezik, patriarkatuaren aurka ere ari gara borrokan. Izan ere, kapitalismoaren aurka borrokatuta ere, ez ditugu genero-harremanak berez aldatuko.

Esparru politiko orokorrean, ekimen partzialak alde batera utzi eta alternatiba globalak sustatu behar dira. Generoa gai politikoa dela pentsatu behar dugu eta ez tresna teknikoa.

Aldaketa lortzeko, nekazarien eskubideen aldeko mugimenduek eta mugimendu feministek bat egin beharko dute. Hain zuzen ere, horren adierazgarri da Emakumeen Mundu Martxaren (MMM) eta Nekazarien Bidearen (LVC) artean ezarritako aliantza estrategikoa. Horren bidez, emakumeek LVCKo zenbait erakundetan daukaten posizioa indartu ahal izan da, eta MMMk bere laguntza eman du, beste era bateko elikadurarako eta nekazaritza-ekoizpenerako erdua aldarrikatzeko orduan.

Hori dela eta, ahaleginak bateratu eta horrelako aliantzak sustatu behar ditugu geure inguruneetan. Ez da erraza izango, ikusi dugunez, patriarkatua nagusi delako arlo guztietan, baita gure erakundeetan bertan ere. Horren ondorioz, berreratu eta birsortu egin beharko gara. Hain zuzen ere, ezinbestekoa da ahalegin hori egitea, ereduaren aldatetan emakumeen eskubideak kontuan hartzen ez badira, beste eredu berri horrek ez duelako inolako zentzurik izango: "beste era bateko mundurik sortzerik badago, emakumeekin egin beharko delako".



Mundubatetik eskerrak eman nahi dizkiegu jardunaldietan parte hartu zuten guztiei eta baita txosten hau burutzea ahalbidetu dutenei ere.





Mundubat

mundubat.org
facebook.com/mundubat



Argazkia: Elaine Campos